- EGABk bere ekimenez egindako “Ekonomiaren eta Gizartearen eragina EAEn aurreikusitako demografiaren bilakaerari begira” azterlanaren aurkezpenaren gaineko eztabaida.
- “Gazteriari buruzko Euskal Legearen aurreproiektuaren” gaineko irizpen proiektua eztabaidatzea eta onestea.

### 2011ko apirilaren 18an

- EGABk bere ekimenez egindako “Ekonomiaren eta Gizartearen eragina EAEn aurreikusitako demografiaren bilakaerari begira” azterlanaren aurkezpenaren gaineko eztabaida.
- “Kirolaren Dopingaren kontrako Legearen aurreproiektuaren” gaineko irizpen proiektua eztabaidatzea eta onestea.

### 2011ko maiatzaren 13an

- Lan Harremanen Kontseiluari buruzko Legearen gaineko irizpen aurreproiektuaren lanei ez jarraitzea erabaki da, irizpenik eman gabe.

### 2011ko ekainaren 22an

- Batzordeari honako irizpenen jarraipenen berri eman zaio:
  - Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearteko Publizitate eta Komunikazioari buruzko Legearen aurreproiektuaren gaineko 3/2010 irizpen.
  - Drogamendetasunaren arloan prebentzio, laguntza eta gizarteratzeari buruzko Legearen aurreproiektuaren 11/2010 irizpena.
  - Gizarte eta osasun artapeneko euskal kontseilua arautzen duen dekretuaren proiektuaren gaineko 14/2010 irizpena.
- “Euskadiko segurtasun publikoaren sistema antolatzeko Legearen aurreproiektuaren” gaineko irizpena eztabaidatzea eta onestea.
- “Pertsona transexualen atarpen integralari buruzko Legearen aurreproiektuaren” gaineko irizpen proiektua eztabaidatzea eta onestea.
- “Gizarte Zerbitzuetako Erregistroen Dekretu proiektuaren” gaineko irizpen proiektuak eztabaidatzea eta onestea.

### 2011ko uztailaren 5ean

- Batzordeari gizarte larrialdiagatiko laguntzei buruzko dekretuaren proiektuaren gaineko 9/2010 irizpenaren jarraipenaren berri eman zaio.
- “Euskadiko EGABri buruzko Legearen aurreproiektuaren” gaineko irizpen proiektua eztabaidatzea eta onestea.

### 2011ko irailaren 14an

- “Familiaren Euskal Kontseiluaren Dekretuaren proiektuaren” gaineko irizpen aurreproiektua eztabaidatzea eta onestea.

### 2011ko irailaren 21ean

- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko honako ordezkari hauen agerraldia Gizarte Batzordean:
  - Mª Paz Larrumbide, Etxebizitzako sailburuordea.
  - Mario Yoldi jauna, Etxebizitzako Plangintza eta Prozesu Eragileen zuzendaria.
  - Rafael B. Farias jauna, Lurzoru eta Hirigintzako zuzendaria.
  - Ignacio de la Puerta jauna, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendaria.
- Betiere "Etxebizitzari buruzko Legearen aurreproiektua" aurkezteko.

### 2011ko urriaren 7an

- "Etxebizitzari buruzko Legearen aurreproiektuaren" gaineko irizpen proiektua eztabaidatzea eta onestea.

### 2011ko abenduaren 13an

- "Euskadiko Enplegu Publikoari buruzko Legearen aurreproiektuaren" gaineko espedientearen tramitazioa geldiaraztea.
- Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Lurzoru eta Hirigintzako zuzendari Rafael B. Farias jaunaren agerraldia, betiere "Hirigintza Estandarrei buruzko Dekretuaren proiektuaren" gaineko irizpena emateko lanak direla eta.

### 2011ko abenduaren 16an

- Batzordeari Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiari buruzko Dekretu proiektuaren gaineko 15/2010 irizpenaren jarraipenaren berri eman zaio.
- "Famili politiken markoan famili errentaren estandarizazioaren sistema arautzen duen dekretuaren proiektuaren" gaineko irizpen proiektua eztabaidatzea eta onestea.
- "Enplegurako 2011-2014 Euskal Estrategiari" buruzko lanak amaitutzat ematea erabaki da, ez baitago irizpenaren edukiaren gaineko erabaki bat hartzeko baldintzarik.

### 2011ko abenduaren 21ean

- Etxebizitza Sailak "Etxebizitzari buruzko Legearen aurreproiektuaren" gaineko 18/2011 irizpenari emandako erantzunari buruzko informazioa.
- "Hirigintza Estandarrei buruzko Dekretuaren proiektuaren" gaineko irizpen proiektua eztabaidatzea eta onestea.
- "Ikuskizun publikoei eta astialdi jarduerei buruzko Legearen aurreproiektuaren" gaineko irizpen proiektua eztabaidatzea eta onestea.

## EAE-KO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA EGITEKO BATZORDEA

### 2011ko urtarrilaren 21ean, Bilbon

Juan Mª Otaegui EGABko presidente jaunak Memoria Sozioekonomikoa egiteko Batzordeari aurkeztu dio batzordeburu berria, Inmaculada Gallastegui andrea, alegia.

2010eko Memoria Sozioekonomikoaren argitalpenaren edukia eta egitura onetsi da, bai eta lan egutegia ere.

### 2011ko martxoaren 24an, Bilbon

- Jorratu diren kapituluen gaineko akordioak eztabaidatu eta hartzen dira:

| Aurkibidea | |
|---|---|
| I.2.2. kapitulua | I+G+b JARDUERAK |
| I.3. kapitulua | NATUR INGURUNEAREN EGOERA |
| III.2. kapitulua | ZENBAIT KOLEKTIBOREN BIZI BALDINTZAK: pertsona ezinduak |
| III.3. kapitulua | OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA |
| III.6. kapitulua | POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA |
| V. kapitulua | ARAUZKO JARDUERA EAE-N |

### 2011ko apirilaren 15ean, Bilbon

- 2010eko Memoria Sozioekonomikoa egiteko lanen jarraipena. Jorratu diren kapituluen gaineko akordioak eztabaidatu eta hartzen dira:

| | |
|---|---|
| I.1.1.1. kapitulua | DEMOGRAFIA ETA INMIGRAZIOA |
| I.1.1.2. kapitulua | HEZKUNTZA ETA HEZKUNTZA SUSTAPENA |
| III.1. kapitulua | FAMILIAK ETA LAN BIZITZA ETA BIZITZA PERTSONALA BATERATZEKO PREMIAK |
| III.5. kapitulua | AISIALDIA ETA KULTURA |
| III.3.5 kapitulua | POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA SOCIAL |

### 2011ko maiatzaren 13an, Bilbon

- 2010eko Memoria Sozioekonomikoa egiteko lanen jarraipena. Jorratu diren kapituluen gaineko akordioak eztabaidatu eta hartzen dira:

| | |
|---|---|
| I.2. kapitulua | EKOIZPEN EGITURA ETA BERRIKUNTZA |
| II.2. kapitulua | EAE-KO EKONOMI ABAGUNEA |
| II.3. kapitulua | PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK |
| II.5. kapitulua | GIZARTE EKONOMIAREN KONTUAK EAE-N |
| III.4. kapitulua | HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA |

### 2011ko ekainaren 1ean, Bilbon

- 2010eko Memoria Sozioekonomikoa egiteko lanen jarraipena. Jorratu diren kapituluen gaineko akordioak eztabaidatu eta hartzen dira:

| | |
|---|---|
| II.1. kapitulua | KANPO INGURUNE EKONOMIKOA |
| II.4. kapitulua | ARLO PUBLIKOA |

### 2011ko ekainaren 13an, Bilbon

- 2010eko Memoria Sozioekonomikoa egiteko lanen amaiera. Jorratu diren kapituluen gaineko akordioak eztabaidatu eta hartzen dira:

| | |
|---|---|
| **II.6. kapitulua** | LAN MERKATUA |
| **VI.1. kapitulua** | LABURPENA |
| **VI.2. kapitulua** | GOGOETAK |
| **IV. kapitulua** | GIZARTE BABESA |

## AKITANIAREKIN LANKIDETZAN JARDUTEKO LAN TALDEA

### 2011ko otsailaren 1ean, Bilbon

Bileraren helburu nagusia da Bordelen Akitaniako CESERekin otsailaren 10 eta 11n egingo den topaketa prestatzea. Bileraren gai zerrenda aztertzeaz gainera, azken dokumentuaren balizko egitura bati buruzko proposamena eztabaidatu eta hartu da, betiere garraioaren arloan egindako lanei buruz. Era berean, Euskadi-Akitaniako Euro-erregioaren eremuan hasierako jarduketa eskema bat aztertu eta hartu da, Akitaniako bazkideekin kontrastatu beharrekoa. Halaber, RTAren markoan, taldearen kideei martxoan Bordelen izango diren ekintzen berri eman zaie.

### 2011ko ekainaren 8an

Bilera helburu bikoitzarekin planteatu da. Alde batetik, Akitaniako CESERek prestatutako Nazioz gaindiko Garraio Sareen etorkizunari buruzko jarrera agiriaren proiektua eztabaidatzea. Arku Atlantikoaren Batzordeak RTAri egindako eskabidearen markoan (betiere Europar Batzordeak nazioz gaindiko garraio sareak berrikusteko proiektatutako irizpideen gainean egindako dokumentuari buruzko iritzia emateko), taldeak Akitaniako proposamena aztertu du eta agirian sartu beharreko aldaketa eta ekarpen batzuk egin ditu, RTAk beharrezko erabakia emateari begira. Beste aldetik, Akitaniako CESERekin Donostian ekainaren 27 eta 28an egingo den bi alderdiko lankidetza bilera prestatu da, gai zerrendan eta auditoretza saioetako aurkezpenetan txertatu beharreko gaiak jorratuz.

### 2011ko azaroaren 14an, Bilbon

Akitaniako CESERekin azaroaren 15 eta 16an izan beharreko baterako bilerari begira, lan taldeko kideek hartu beharreko erabakiak aipatzen jardun dute agendaren puntu desberdinetan. Akitaniako CESERek bidalitako dokumentu bat aztertu da, azken dokumentuaren aurrerapenerako eta puntu batzuen idazkeraren hasierarako proposamenak jasotzen dituena, eta horren gainean Bordeleko bileran azaldu beharreko baterako jarrera adostu da.

# II. KAPITULUA

# Euskadiko EGABren Legean ezarritako eginkizunak

# 1. Aholkularitza jarduera

## 1/11 IRIZPENA, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko irailaren 15ean

**Idazkaritza teknikoa**: Arantza Unzurrunzaga

**Batzordea**: Garapen Ekonomikoaren Batzordea

**Bilerak**: 2010eko azaroaren 5ean eta 2011ko urtarrilaren 17an; lehenengo bilera horretan Manuela Escribano Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Finantza sailburuordearen agerraldia izan zen, lege aurreproiektua aurkezteko.

**Emaitza**: batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk urtarrilaren 21ean osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena gehiengoz onetsi da.

## 2/11 IRIZPENA, Nekazaritza eta Elikagai Politikari buruzko Legea aldarazteko Legearen aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2011ko urtarrilaren 31n

**Idazkaritza teknikoa:** Leire Ozerin

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilerak:** 2011ko otsailaren 14an

**Emaitza:** batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk otsailaren 25ean osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

## 3/11 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoko Famili Bitartekaritzaren Zerbitzu Publiko Integralera Sartzeko Prozeduraren Dekretu proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2011ko otsailaren 4an

**Idazkaritza teknikoa**: Arantza Lopez de Munain

**Batzordea**: Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilerak**: 2010ko martxoaren 11n

**Emaitza**: Batzordeak eztabaidatu du idazkaritza teknikoak proposatutako irizpen aurreproiektua, batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz. Hartara, irizpenaren proiektua EGABren osoko bilkurari helarazi zaio. Hori 2011ko martxoaren 9an egindako osoko bilkuran onetsi da aho batez.

### 4/11 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak artatzeko eta babesa emateko udal eta lurralde mailako gizarte zerbitzuetan arriskuko egoeren larritasuna baloratzeko tresna (BALORA) onesten duen dekretuaren proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2011ko otsailaren 4an

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Lopez de Munain

**Batzordea:** Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilera:** 2011ko martxoaren 1ean

**Emaitza:** Batzordeak eztabaidatu du idazkaritza teknikoak proposatutako irizpen aurreproiektua, batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz. Hartara, irizpenaren proiektua EGABren osoko bilkurari helarazi zaio. Hori 2011ko martxoaren 9an egindako osoko bilkuran onetsi da aho batez.

### 5/11 IRIZPENA, Telelaguntzaren Zerbitzu Publikoari buruzko Dekretuaren proiektuari buruz

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data:** 2011ko otsailaren 9an

**Idazkaritza teknikoa:** Leire Ozerin

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilerak:** 2011 martxoaren 1ean

**Emaitza:** batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk 2011ko martxoaren 9an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

### 6/11 IRIZPENA, Gizarte Segurtasun Publikoaren Antolamenduaren Dekretuaren proiektuari buruzkoa.

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data:** 2010eko urriaren 28an lehendabiziko zirriborroa eta 2011ko otsailaren 17an behin betiko bertsioa

**Idazkaritza teknikoa:** Leire Ozerin

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilerak:** 2010eko azaroaren 11n: Ernesto Martínez de Hidalga Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen, Iñaki Calonge Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen zuzendariaren eta EUgenio Artetxe Aholkularitza Juridikoaren Buruaren (letratua) agerraldia; eta 2011ko martxoaren 14an.

**Emaitza:** batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk martxoaren 23an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

## 7/11 IRIZPENA, Pertsona Bitartekarien Erregistroaren Dekretuaren proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko otsailaren 25ean.

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea.

**Bilera:** 2011ko martxoaren 14an.

**Emaitza:** Batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk martxoaren 23an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

## 8/11, IRIZPENA, Atmosfera potentzialki kutsa dezaketen jarduerak garatzen direneko instalazioen erregulazioaren gaineko dekretuaren proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2011ko martxoaren 9an

**Idazkaritza teknikoa**: Arantza Lopez de Munain

**Batzordea**: Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilera**: 2011ko martxoaren 28an

**Emaitza**: Batzordeak eztabaidatu du idazkaritza teknikoak proposatutako irizpen aurreproiektua, batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz. Hartara, irizpenaren proiektua EGABren osoko bilkurari helarazi zaio. Hori 2011ko apirilaren 6an egindako osoko bilkuran onetsi da aho batez.

## 9/11 IRIZPENA, Gazteriari buruzko Euskal Legearen aurreprioektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko martxoaren 11n.

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea.

**Bilera:** 2011ko apirilaren 1ean.

**Emaitza:** Batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk apirilaren 6an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

## 10/11 IRIZPENA, Kiroleko Dopingaren Kontrako Legearen aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko martxoaren 25ean.

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea.

**Bilera:** 2011ko apirilaren 18an.

**Emaitza:** batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera,

irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk apirilaren 6an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

### 11/11 IRIZPENA, Euskadiko Garapen Iraunkorrari buruzko 2020 Estrategiari (EkoEuskadi 2020) buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2011ko maiatzaren 30ean

**Idazkaritza teknikoa**: Arantza Lopez de Munain

**Batzordea**: Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilerak**: 2011ko maiatzaren 16an, maiatzaren 30ean eta ekainaren 6an.

**Emaitza**: Batzordeak eztabaidatu du idazkaritza teknikoak proposatutako irizpen aurreproiektua, batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz. Hartara, irizpenaren proiektua EGABren osoko bilkurari helarazi zaio. Hori 2011ko ekainaren 8an egindako osoko bilkuran onetsi da aho batez.

### 12/11 IRIZPENA, Pertsona Transexualen Artapen Integralerako Legearen aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data** : 2011ko maiatzaren 31n

**Idazkaritza teknikoa**: Leire Ozerin

**Batzordea**: Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilera**: 2011ko ekainaren 22an

**Emaitza**: batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk 2011ko ekainaren 30ean osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

### 13/11 IRIZPENA, Gizarte Zerbitzuen Erregistroen Dekretuaren proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko maiatzaren 31n.

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea.

**Bilera:** 2011ko apirilaren 18an.

**Emaitza:** batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk ekainaren 22an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

### 14/11 IRIZPENA, Bidaiariak Errepidetik Garraiatzeari buruzko Legearen Araudia onesten duen dekretuaren proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko azaroaren 11n

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Lopez de Munain

**Batzordea:** Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilerak:** 2011ko ekainaren 23an eta ekainaren 29an

**Emaitza:** Batzordeak eztabaidatu du idazkaritza teknikoak proposatutako irizpen aurreproiektua, batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz. Hartara, irizpenaren proiektua EGABren osoko bilkurari helarazi zaio. Hori 2011ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran onetsi da aho batez.

## 15/11 IRIZPENA, EGABren Legearen aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko apirilaren 12an.

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea.

**Bilera:** 2011ko uztailaren 5ean.

**Emaitza:** batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk uztailaren 8an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena gehiengoz onetsi da.

## 16/11 IRIZPENA, Familiaren Euskal Kontseiluaren Dekretuaren proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko uztailaren 20an.

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea.

**Bilera:** 2011ko irailaren 14an.

**Emaitza:** Batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk irailaren 23an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

## 17/11 IRIZPENA, Bizitza Osoan Ikasteko Legearen aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2011ko uztailaren 26an

**Idazkaritza teknikoa**: Leire Ozerin

**Batzordea**: Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilera**: 2011ko irailaren 14an

**Emaitza**: Batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk irailaren 23an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

## 18/11 IRIZPENA, Etxebizitza Legearen aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko abuztuaren 1ean.

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea.

**Bilerak:** 2011ko irailaren 21ean (bilera horretan María Paz Larumbide Etxebizitzako sailburuordearen eta sail horretako beste zuzendari batzuen agerraldia izan da, legearen aurreproiektua aurkezteko) eta 2011ko urriaren 11n.

**Emaitza:** Batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk urriaren 21ean osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

## 19/11 IRIZPENA, Euskal Autonomia Erkidegoko Paisaiaren Legearen aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2011ko irailaren 23an.

**Idazkaritza teknikoa**: Leire Ozerin

**Batzordea**: Garapen Ekonomikorako Batzordea.

**Bilerak**: 2011ko urriaren 14an.

**Emaitza**: Batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk urriaren 21ean osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

## 20/11 IRIZPENA, Eraikuntza eta erauzketa arloetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen duen dekretuaren proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2011ko urriaren 10ean.

**Idazkaritza teknikoa**: Leire Ozerin

**Batzordea**: Garapen Ekonomikorako Batzordea.

**Bilerak**: 2011ko azaroaren 9an.

**Emaitza**: Batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk 2011ko azaroaren 18an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

## 21/11 IRIZPENA, Kargu publikoaren jokabidearen kodea eta haren bateraezintasun araubidea arautzeko Legearen aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko azaroaren 17an.

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Garapen Ekonomikorako Batzordea.

**Bilera:** 2011ko abenduaren 15ean.

**Emaitza:** batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera,

irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk abenduaren 23an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

### 22/11 IRIZPENA, Famili politiken markoan famili errentaren estandarizazio sistema arautzen duen dekretuaren proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko azaroaren 28an.

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea.

**Bilera:** 2011ko abenduaren 16an.

**Emaitza:** Batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk abenduaren 23an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

### 23/11 IRIZPENA, Ikuskizun Publiko eta Astialdi Jardueren Legearen aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2011ko azaroaren 4an.

**Idazkaritza teknikoa**: Leire Ozerin

**Batzordea**: Gizarte Garapenerako Batzordea.

**Bilerak**: 2011ko abenduaren 21ean.

**Emaitza**: Batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk abenduaren 23an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

### 24/11 IRIZPENA, Estandar Urbanistikoen Dekretuaren proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera data**: 2010eko azaroaren 29an.

**Idazkaritza teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea.

**Bilerak:** 2011ko abenduaren 13an (bilera honetan Lurzoru eta Hirgintzako zuzendariaren agerraldia izan da, dekretuaren proiektua aurkezteko) eta 2011ko abenduaren 21ean.

**Emaitza:** Batzordeko kideek egindako proposamen eta iritzietan oinarri hartuz idatzitako irizpen aurreproiektua eztabaidatu da. Hartutako erabakien arabera, irizpen proiektua egin da, EGABko bilkurara igortzeko. EGABk abenduaren 23an osoko bilkura egin du eta bilkura horretan irizpena aho batez onetsi da.

## 2. EAEko Egoera Sozioekonomikoari buruzko Memoria

Euskal Autonomia Erkidegoko 2010. urteko Egoera Sozioekonomikoari buruzko Memoria aho batez onetsia izan zen Euskadiko Ekonomia eta gizarte Arazoetarako Batzordeak 2011ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkuran, betiere EGABren arautegiak ezarritako epeen barruan. Hori dela bide, organo horri atxikitako lege agindua bete da, hots, urtero EAEko ekonomi eta gizarte egoerari buruzko gogoetak azaltzen dituen memoria egin eta Gobernuari eta Euskal Legebiltzarrari igortzea.

Hona hemen hori egiteko ardura izan duen lan batzordea osatu dutenak: Inmaculada Gallastegui batzordeburua, CC.OOko Antxon Tomasena eta Eduardo García jaunak, UGTko Maribel Ballesteros eta Raúl Arza jaun-andreak, CONFEBASKeko Carlos Pereda, Eduardo Aréchaga eta Jaime Fernández jaunak, UPV-EHUko Sylvia Gay andrea, Aurrezki Kutxa eta Finantza Erakundeetako Rafael Aranguren jauna, ASLEko Javier Muñecas jauna eta Nekazaritza Erakundeetako Xabier Iraola jauna, bai eta EGABko adituen taldeko kide gisa Felicísimo Ayastuy, Iñaki Barrenetxea, Aitor Bengoetxea eta Carlos Trevilla jaunak eta idazkari tekniko gisa Leire Ozerin andrea ere.

Dokumentazio teknikoa EGABren Azterlanen eta Proiektuen arduradunek, Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga andreek garatu zuten. Horri erantsi zitzaizkion Batzordean parte hartzen duten bestelako elkarteen, erakundeen eta adituen ekarpenak.




2010eko Memoria egin ahal izateko, Batzordeak sei lan bilera antolatu zituen: 2011ko urtarrilaren 21ean, martxoaren 24an, apirilaren 15ean, maiatzaren 13an, ekainaren 1ean eta ekainaren 13an, eta data horietan “EAEren 2010eko Memoria Sozioekonomikoaren” proiektuaren emanaldiak aho batez onetsiz joan ziren eta EGABren bilkurari igorri zitzaizkion.

Euskadiko EGABk gure autonomia erkidegoko memoria sozioekonomikoari buruz egindako hamalaugarren edizioan ekonomiaren eta gizartearen errealitateari buruzko daturik garrantzitsuenak aztertu dira, eta Batzordea osatzen duten ekonomi nahiz gizarte eragile ezberdinen diagnostiko partekatua eskaintzen du.

EAEko 2010eko Egoera Sozioekonomikoari buruzko Memoriak "Laburpena eta Gogoetak" izenburuko azken kapitulua ez ezik honako eduki eta multzoak ere baditu:

## I. KAPITULUA. Jarduera ekonomikoa garatzeko baliabideak EAEn

1. EAEKO GIZA BALIBAIDEAK:
   - Demografia eta inmigrazioa.
   - Hezkuntza eta hezkuntza sustapena.
2. EAEKO EKOIZPEN EGITURA ETA BERRIKUNTZA:
   - Ekoizpen egitura.
   - I+G+B eta IKT arloetako jarduerak.
3. EAEKO NATUR INGURUNEAREN EGOERA

## II. KAPITULUA. EAEko ekonomia

1. KANPO INGURUNE EKONOMIKOA
2. EAEKO ABAGUNE EKONOMIKOA
3. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK
4. ARLO PUBLIKOA
5. GIZARTE EKONOMIAREN KONTUAK
6. LAN MERKATUA

## III. KAPITULUA. EAEko bizi kalitatea

1. FAMILIAK ETA LAN BIZITZA ETA BIZITZA PERTSONALA BATERATZEKO PREMIAK
2. ZENBAIT KOLEKTIBO ZAURGARRIREN BIZI BALDINTZAK:
   PERTSONA EZINDUAK
3. OSASUNA ETA OSASUN SISTEMA
4. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA
5. AISIALDIA ETA KULTURA
5. POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKETA

## IV. KAPITULUA. EAEko gizarte babesa

1. EAEKO GIZARTE ZERBITZUAK
2. LANGABEZIAREN BABESA: EEZP
2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK EAEN
3. POBREZIAREN ETA GIZARTE BAZTERKETAREN KONTRAKO NEURRIAK EAEN
4. GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK EAEN

## V. KAPITULUA. Arauzko jarduera EAEn

## VI. KAPITULUA. Laburpena eta gogoetak

Berrikuntza gisa eta Memoria Sozioekonomikoaren edukiei zabalkunde handiagoa eman nahian, bitarteko bi aurrerapen agiri egin ziren eta amaieran aurkezteko jardunaldia uztailean; aurkezpen horretan interes nabarmeneko bi hizlari izan ziren.

Aurrerapen agirien edukiak honakoak izan ziren:

- **Lehendabiziko aurrerapena, 2011ko maiatzean.**
  - AURKEZPENA.
    1. Demografia eta inmigrazioa
    2. Familiak eta lan bizitza eta bizitza pertsonala bateratzeko premiak
    3. Zenbait kolektibo zaurgarriren bizi baldintzak: pertsona ezinduak
    4. Pobrezia eta gizarte bazterketa
  - GOGOETAK

- **Bigarren aurrerapena, 2011ko ekainean.**
  - AURKEZPENA.
    1. Kanpo ingurune ekonomikoa
    2. EAEko abagune ekonomikoa
    3. Prezioak, kostuak eta errentak
    4. EAEko ekoizpen egitura
  - GOGOETAK

# 3. Ekimen propioa

## EGAB-K BERE EKIMENEZ EGINDAKO AZTERLANAK

2011n Euskadiko Ekonomia eta gizarte Arazoetarako Batzordeak bere ekimenez aurrera eramandako azterlanak prestatzen jarraitu du. 2003an hasitako lan ildo horrek ahalbidetu du aukeratutako gaietan sakontzeko aukera izatea, gai horiek guztiek gure herrialdea ekonomikoki eta sozialki garatzeko aparteko garrantzia baitute. Azterlan konplexuak dira eta horien bitartez EGABk bere zeregina betetzen du iritzi sortzaile gisa; izan ere, zeregin hori aintzatetsita dago Euskadiko EGABri buruzko 97/1997 Legearen 3.d) artikuluan.

2011n amaitutzat eman ziren ondorengo azterlan hauek prestatzeko lanak:

### EKONOMIAREN ETA GIZARTEAREN ERAGINA EAE-N AURREIKUSITAKO DEMOGRAFIAREN BILAKAERARI BEGIRA

**Lan Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea
**Arduradun teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga




#### Justifikazioa

XXI. mende hasiberri honetan, zahartze demografikoaren fenomenoak mendebaldeko gizarte guztiei eragiten die eta, aurreikuspenen arabera, 60 urteko edo handik gorako pertsonen kopurua bikoiztuko da 2050. urteari begira. Hala eta guztiz ere, prozesu horrek dimentsio kezkagarria dauka harekin batera gure gizarteetan jaiotza tasak nabarmen jaitsiko direlako; horrek eragingo du adinekoen pisu erlatiboa handitzea biztanleria osoaren multzoan. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan panorama antzekoa da edo are ezaugarri zorrotzagoak izango ditu.

Ukaezina da joera horiek ageri-ageriko erronkak ekartzen dizkiela bai mendebaldeko europar gizarteei oro har bai euskal gizarteari bereziki. Bilakaera demografikoak garrantzia hartzen du etorkizun hurbilean eta ez hain hurbilean biztanleriak eta haren osaerak gizarte premia batzuk sorrarazten dituzten neurrian.

#### Helburua

Ingurumari honetan Euskadiko Ekonomia eta gizarte Arazoetarako Batzordeak egokitzat jo du aurreikusitako demografiaren bilakaerak EAEn izango duen gizarte eta ekonomi eraginen gaineko azterlan panoramiko bat atontzea. Gauzak horrela, demografia bihurtzen da gizarte osoari ekarriko dizkion eragin eta joeren gaineko

hausnarketa egiteko oinarria; halaber, ikusiko da nola balia daitezkeen eragin positiboak eta nola txiki daitezkeen eragin negatiboak.

Ildo horri jarraituz, azterlanaren edukiak EAErako aurreikuspen demografikoak eta bilakaera aztertzen ditu, bai eta arlo desberdinetan biztanleriaren zahartzeak euskal gizarteari eta ekonomiari ekarriko dizkien eraginak ere. Horren ondoren, aldaketa demografikoarekin zerikusia duten eta inguruko herrialdeetan abian jarri diren politikak berrikusten dira; politikok erreferentziatzat hartu ahal izango dira gure autonomia erkidegoan azaldutako erronkei aurre egiteko bidea jorratzea ahalbidetuko duten jarduketa gomendioak egiterakoan.

### Edukia

- Gaur egungo egoeraren azterketa eta perspektiba demografikoak: epe ertain eta luzeari begira EAEn, betiere Europako eta estatuko testuingurukoekin alderatuta. Azken hamarkadetako bilakaera demografikoa aztertzen da, bai eta haren baldintzatzaileak eta beste estatistika erakunde batzuek egindako aurreikuspen demografikoak ere; azkenik, aurreikusitako aldaketa demografikoen aldaketa faktore nagusiak identifikatzen dira.
- Aurreikuspen demografikoek EAEko zenbait gizarte eta ekonomi eremutan izango dituzten eraginak identifikatzea ea aztertzea. Zehatzago esanda, garrantzi handia duten ondorengo eremu sozioekonomikoak hautatu dira euren eragin mailaren arabera:
    - Lan merkatua
    - Pentsio sistema
    - Osasuna eta gizarte zerbitzuak
    - Hezkuntza sistema

  Bilakaera demografikoak izango dituen eraginak aztertzen dira eremu horietariko bakoitzari begira, betiere aldagairik garrantzitsuenak eta haien ondorioak kontuan harturik (gizarte beharrizanak eta eskariak, gastu publikoa eta abar).
- Nazioartean planteatutako aldaketa demografikoarekin zerikusia duten estrategiak eta politikak (Europar Batasuneko herrialdeetan nagusiki), betiere identifikaturiko erronka demografikoei aurre egin nahian. Politika horien azterketa egituratzen da gorago zehaztutako eremu sozioekonomiko berdinak aintzakotzat harturik.
- Azterlanak agerian jarritako gairik eta ondoriorik garrantzitsuenen laburpena; halaber, amaitzeko, zenbait gogoeta eta gomendio emango dira gure erkidegoan zahartze demografikoak ekarriko dituen desafioei aurre egiteko bideari dagokionez.

### Lanen bilakaera eta egindako bilerak

**Bilera**: 2010ean lanaren 1, 2, 3 eta 4. kapituluak onetsita egonik, lan batzordea 2011ko otsailaren 2an bildu da, laburpen eta ondorioei buruzko 5. atalaren eta gogoeta eta gomendioei buruzko 6. atalaren gaia jorratzeko. Kapitulu horiek aho

batez onetsi dira bilera horretan eta, horrenbestez, azterlan honi dagozkion lanak amaitutzat eman dira batzordean.

**Emaitza:** txosten proiektua egin da eta EGABren bilkurari helarazi zaio. EGABk osoko bilkura egin du otsailaren 28an eta bilkura horretan aho batez onetsi da batzordearen ekimenen egindako azterlan hau.

## EAE-KO GIZARTE ETA EKONOMI JARDUERAREN BEHARRIZANETARA EGIN BEHARREKO HEZKUNTZA SISTEMAREN EGOKITZAPENA

**Lan batzordea:** Garapen Ekonomikorako Batzordea
**Arduraduna:** Leire Ozerin




### Justifikazioa

Globalizazioa, joera demografiko berriak, teknologia berrien aplikazioa, teknologiak garbiak edo berdeak lehenesten dituen ekonomia bateranzko trantsizioa, lanaren antolakuntzak izandako aldaketak... horiek guztiak gaur egungo eredu sozioekonomikoa agerian jartzen duten elementuetariko batzuk dira; izan ere, eredu horrek etengabeko aldaketak izaten dihardu, epe labur, ertain eta luzerako inplikazioekin.

Testuinguru honetan ez du ematen posiblea denik gizarte, osasun, ekonomia, ekoizpen, lan, hezkuntza edota politika arloetako sistemak, besteak beste, sistema aldaezintzat hartzea, baizik eta etengabe bilakatuz doazen sistematzat.

Biztanleriaren zahartzeak, migrazioek, garapen iraunkorrak (bere hiru premisak kontuan hartuta, hau da, gizarte, ingurumen eta ekonomia arloetakoak), belaunaldi aldaketek eta teknologia berriek eta haien aplikazioek enpleguari, lanbideei eta kualifikazioei eragiten diete zalantza izpirik gabe.

“EBko estatukide gehienetan handituz joan da lan merkatuaren gaitasunetako desfaseagatiko kezka. Informazio osagabea eta egitura zorroztasunak direla eta, langileek eta enpresek arlo egokietan ez dute beren burua zuzkitzen beharrezko gaitasunekin eta horrek lehiakortasunari eragiten dio, bereziki enpresa txikienari. EBko unibertsitateek eta prestakuntza sistemek transmititzen dituzten gaitasunen osaerak ez dio bete-betean laguntzen berrikuntzarantz orientatutako ekonomia bati” (COM (2008) 868, azkena).

Enpleguari eta lanbideei dagokienez, sektoreen bilakaeraren ondorioz aldaketak ari dira gertatzen (gizarte premia berriak, eskariaren aldaketak, lan antolamenduaren aldaketak, IKTren ezarpena, belaunaldi aldaketak...). Eta horregatik, lanbide batzuk garrantzia galduz doaz beste batzuen aldean eta horrek eragiten eta eragingo die beharrezkoak diren lanbide motei; horrek berekin dakar enplegu eskariaren eta

prestakuntzen eta eskaintzaren artean beharrezkoa izango den doikuntza aurreikustea; esan nahi baita, beharrezko hezkuntza eta prestakuntza eskaintza egituratu behar da, bai arautua bai ez arautua, beharrezko prestakuntza etengabea, alegia.

Zenbait kontutan adostasuna dago eta, horren arabera, lehen sektoreak enpleguak galtzen jarraituko du; halaber, industriak eta eraikuntzak garrantzia galduko dute enpleguari dagokionez, baina batez ere aldaketak ikusten ari gara eta ikusiko ditugu eskatzen diren lanbide eta gaitasunetan (TXIKIA: ISCED 0-2, ERTAINA; ISCED 3-4 eta HANDIA: ISCED: 5-6); zerbitzu sektoreak garrantzia hartuko du enplegu osoan, jarduera adar batzuk haziko diren neurrian (kultura eta aisialdia, hezkuntza, zerbitzu aurreratuak, gizarte eta osasun zerbitzuak…) eta gaitasun handiko (ISCED 5-6) ertaineko (ISCED 3-4) eta txikiko lanpostuak (ISCED 1-2, ostalaritzan, osasun laguntzan, etxeko laguntzan eta garraioan...) bete behar izango dira.

Laburbilduz, dibertsifikazio bat ari da gertatzen, urritzen ari diren sektoreak daudelako, eraldatzen ari diren sektoreak daudelako, baina, aldi berean, neurri batean edo bestean ekoizpen oinarri tekniko ezagunak dituztenak, eta goraka doazen sektoreak daudelako; horrek zuzeneko eraginak ditu enpleguan, eskatuko diren lanbideetan eta beharrezkoak izango diren lanbideetan.

Testuinguru honetan, iraganean bezala, funtsezkoa izango da aldaketak aukera gisa ulertzea, eta hori gaur egungo egoera aztertzeko gaitasunarekin ez ezik aldaketa hori aurreikusteko eta horretara egokitzeko trebeziarekin ere egongo da loturik.

### Helburua

Ingurumari honetan Euskadiko EGABk egokitzat jo zuen EAEko gizarte eta ekonomi jardueraren beharrizanetara egin beharreko hezkuntza sistemaren egokitzapenari buruzko azterlan bat egitea, gaur egun lan merkatuak eskatzen dituen lanbideen eskaintzaren eta eskarien artean dagoen aldea ikertzeko eta epe labur, ertain eta luzean beharrezkoak izango diren lanbide eta gaitasunak aurreikusten ahalegintzeko.

### Edukia

| | |
|---|---|
| I. KAPITULUA | Azterlanaren marko orokorra eta planteamendua aurkezten da. |
| II. KAPITULUA | Honetan, zehatz-zehatza izan gabe, zientzi, teknologi, ekonomi, enpresa eta gizarte eremuetan dauden joerei buruzko informazioa aztertzen da. |
| III. KAPITULUA | Kapitulu honetan aztergai dago lan merkatuak behar dituen lanbideen eskaintzen eta eskarien arteko aldea eta horren doikuntza maila. |
| IV. KAPITULUA | Gure hezkuntza eta prestakuntza sistemaren ikuspegia aurkezten du, nagusiki modu kuantitatiboan, eta Europarekiko aldea aztertzen du. |
| V. KAPITULUA | Nazioarteko kasu bereziak aztertzen ditu. |

| VI. KAPITULUA | Lanaren laburpena jasotzen du, egon litezkeen eszenatokiak eta hobetzeko gogoetak eta proposamenak. |
|---|---|

### Lanen bilakaera eta egindako bilerak

Batzorde Ekonomikoak bost aldiz bildu zen 2011. urtean zehar:

- Otsailaren 8an, I, II eta III. kapituluak eztabaidatzeko eta onesteko. Aldaketa batzuei buruzko iradokizuna eginda, kapituluok onetsi ziren.
- Otsailaren 28an, IV eta V. kapituluak eztabaidatzeko eta onesteko. Aldaketa batzuei buruzko iradokizuna eginda, kapituluok onetsi ziren.
- Apirilaren 14an Lan Batzordea aholkularitza taldearekin bildu zen, prospektibako eszenatokietara hurbiltzeko adostasuna lortze aldera.
- Uztailaren 15ean, VI. Kapitulua eztabaidatzeko. Laburpena, eszenatoki posibleak, gogoetak eta hobekuntza proposamenak. EGABren zerbitzu teknikoek batzordearen kide diren erakundeekin bi alderdiko bilerak egin behar dituztela ondorioztatu zen.
- Otsailaren 28an, VI. kapitulua eztabaidatzeko eta onesteko. Aldaketa batzuei buruzko iradokizuna eginda, kapitulua eta azterlan osoa onetsi ziren lan batzordean.

Emaitza gisa, txosten proiektua egin zen eta EGABren bilkurari igorri zitzaion. EGABk bilkura bat egin zuen urriaren 21ean eta bere ekimenez egindako azterlan hau aho batez onetsi zen.

## ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GARAPENA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

**Lan batzordea:** Garapen Ekonomikorako Batzordea
**Arduradun teknikoa:** Arantza López de Munain




### Justifikazioa

Energia berriztagarriek funtsezko zeregina betetzen dute gure inguruko herrialdeetako klima eta energi politiketan, berotegi efektuko gasen isurpena murrizteko, kanpo mendetasuna murrizten duten energi iturri autoktonoak eta deszentralizatuak ustiatzeko eta teknologia aurreratuetako industriak sustatzeko daukaten gaitasuna dela eta. Horrela aitortu zuten EBko estatu eta gobernuburuek 2007ko martxoko Europar Kontseiluan; bilera horretan EBk Europa eraldatzeko konpromisoa hartu zuen berotegi efektuko gasen isurpen txikiko eta eraginkortasun handiko ekonomia bihurtuz; halaber, 2020. urteari begira berotegi efektuko gasen isurpena %20 murriztea erabaki zuen eta

energiaren kontsumoa %20 gutxitzea (betiere 2020.urteari begirako proiektatutako balioen aldean) eta energia berriztagarrien %20ko helburu kuantitatiboa lortzea EBko 2020rako energiaren kontsumo osoan.

Erabaki horrek EBk energia berriztagarriekin epe luzera daukan konpromisoa berresten du eta energia berriztagarrien kopuru anbiziotsua lortzeko betebeharra ezartzen du aplikazio guztietan (elektrizitatean, berokuntzan, hozketan eta garraioan) eta izaera loteslearekin, betiere sektoreari epe luzerako egonkortasuna emanez, inbertsiogileei segurtasuna eskainiz eta energia sortzen duten teknologien garapen iraunkorra bultzatuz energia berriztagarrien iturrietatik abiatuz.

Konpromiso politikoari legezko bermeak eman zaizkio iturri berriztagarrietatik etorri beharreko energien erabilera sustatzeko 2009/28/CE zuzentarauarekin; zuzentarau hori aurtengo apirilean onetsi zen Klima-Energia izeneko legegintza multzoan, eta Espainiari energia berriztagarrien %20ko kuota osoa dagokio 2020. urteari begira. Euskal administrazioak 80ko hamarkadatik bultzatzen dihardu energia berriztagarriak Euskadin eta 2011tik aurrera estrategia energetiko berriak bere politika bideratu behar izango du Europako politika energetikoaren eta energia berriztagarrien bultzada berrira.

## Helburua

Ingurumari honetan, Euskadiko Ekonomia eta gizarte Arazoetarako Batzordean EAEko energia berriztagarrien garapenaren inguruko gaiari heltzeko interesa piztu zen, bai energia berriztagarriak indartzeko europar politika energetikoaren aginduak betetzeko eremuan bai energia mota horiek ingurumen iraunkortasunari dakarzkioten abantailen aprobetxamenduaren eremuan bai garapen ekonomikoaren eta enpleguen sorkuntzaren eremuan; gauzak horrela, Euskadiko EGABk gai honi buruzko azterlana egitea erabaki du EAEk energia berriztagarrien garapenean dituen potentzialtasunak ezagutzeko, horri buruzko markoa aztertzeko eta prozesu hori ahalbidetuko dute neurriak definitzeko.

## Edukia

- Energia berriztagarrien iturri desberdinen deskripzioa, horiek lortzeko teknologiak eta horien bilakaera 2020. eta 2050. urteei begira, betiere EAEn dauden eta ustia daitezkeen baliabide berriztagarriak ezagutze aldera, bai eta energia bihurtzeko modalitate teknologikoak ere.
- EAEn erabili daitezkeen energia berriztagarrien iturri bakoitzaren sorkuntza energetikoaren potentzialtasunaren ebaluazio kuantitatiboa, betiere 2020. eta 2050. urteei begirako garapen teknologikoari dagokion eraginkortasun teknologikoaren arabera eta EAEk bi epe horietan bere premia energetiko osoak iturri berriztagarrietatik asebetetzeko duen gaitasunaren arabera.
- EAEn energia berriztagarrien garapenean eragina duten faktore ez-teknologikoen azterketa, garapen horri begira positiboak izan daitezkeenak identifikatzeko eta nagusiki prozesu honen galgak direnen berri izateko, egoera hori zuzendu nahian. Halaber, EAEn aprobetxa daitezkeen energia berriztagarrien modalitate

bakoitzaren inguruan marko juridikoa, ekonomikoa, finantzazkoa eta ingurumenezkoaren egokitasuna deskribatzen eta baloratzen da, bai eta horien gizarte onarpena ere.

- EAEn energia berriztagarriek izango duten eragin sozioekonomikoa ere aztertuko da, bai enpresa gaitasunei eta gaitasun teknologikoei dagokienez bai enpleguaren sorkuntzari dagokionez.
- EAEn energia berriztagarriek etorkizunean izango duten garapenaren gaineko ondorioak eta gogoetak eta EAEko baliabide energetiko berriztagarriak aprobetxatzeari begirako gaur egungo garapenaren markoan dauden oztopoak kentzearen gainekoak.

### Lanen garapena

Azterlanaren edukiak ezarri ziren 2009an lehiaketa publikoaren bidez hautatutako kanpo aholkularitza talde baten partaidetzarekin, betiere Euskadiko EGABren zerbitzu teknikoen zuzendaritzaren pean eta Garapen Ekonomikorako Batzordearen barruan aztertu eta eztabaidatu ondoren. 2010ean hasitako lanek 2011. urte osoan jarraitu zuten eta makina bat bilera egin zen. Bileretan azterlanaren gai desberdinak aurkezteko saioak izan dira, bai eta kapituluak ontzat emateko eta eztabaidatzeko bilerak ere: otsailaren 4an, otsailaren 9an, maiatzaren 6an, maiatzaren 16an, ekainaren 29an eta uztailaren 13an. Abenduaren 15ean ondorioen eta gogoeten gaineko kapituluak onetsi ziren idazkaritza teknikoaren proposamenez. Azterlana batzordearen bilkurak onetsi zuen 2011ko abenduaren 23an.

# TRIBUNAK ETA KONFERENTZIAK

## PEDRO REQUES: "EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LURRALDE ETA DEMOGRAFIA EGITURAK"

### 2011ko maiatzaren 20an, Bilbon.

Maiatzaren 20an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Tribuna delakoaren beste saio bat antolatu zuen. Bertan, Kantabriako Unibertsitateko Giza Geografiako katedradun Pedro Reques irakasleak parte hartu zuen. Aipatutako hitzaldia egin zen batzordeak bere ekimenez sustatutako lan baten aurkezpenaren ildoan: "Aurreikusitako demografia-bilakaeraren ondorioak EAEko ekonomia eta gizartean", EGABk argitaratuta.

*"Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eta demografia egiturak: oraina etorkizuna da"* izeneko hitzaldian, aditu horrek EAEko biztanleria aztertu zuen ikuspegi geodemografikotik, gaur egungo egitura zehazten eta etorkizuneko egoera baldintzatzen duten prozesuen espazio eta denborazko azterketatik abiatuta.



Reques irakaslearen iritziz, Mendebaldeko Europan, eta bereziki Euskadin, izandako aldaketak berebizikoak izan dira azken hiru hamarkadetan eta, horren ondorioz, demografia beste aldagai batzuei nagusitu zaie. Lehen, ekonomiaren eta gizarte aldaketaren menpeko aldagaia genuen demografia; orain, berriz, demografiak baldintzatzen –eta batzuetan zehazten– ditu ekonomia eta gizarte egitura. Requesek hiru ardatz jorratu zituen aurkezpenean: gizarte dinamika, gizartearen egitura eta kokapen espaziala– euskal herritarren berezitasunak azaltzeko estatuko eta Europako biztanleriaren ezaugarriekin alderatuta.

## EAEko 2010eko MEMORIA SOZIOEKONOMIKOAREN AURKEZPENA

### 2011ko uztailaren 14an, Bilbon.

Uztailaren 14an, EAEko 2010eko Memoria Sozioekonomikoa aurkezteko ekitaldia antolatu zuen Euskadiko EGABk. Ekitaldi horretan, Inmaculada Gallastegui andreak memoria aurkeztu zuen eta Javier Elzo eta Mikel Navarro irakasleek hitzaldi bana eman zuten.



- **Javier Elzo irakaslearen hitzaldia: "Internet aroa: buru berriak, balio berriak, kultura berria?"**

Elzo irakasleak euskal gazteen jarduerei eta elkarteetako parte-hartzeari buruzko datuak eman zituen era laburrean. Hala berean, egungo errealitatea IKTen bitartez ikasteko moduaren eraginaz hausnartu zuen. Horri dagokionez, honelako galdera egin zion bere buruari: orain dela hamar urte ohikoak ziren jokamoldeen aldean, belaunaldi berriak beste modu batean gizarteratzeaz gain, ez ote dituzte pentsamolde berriak eraikitzen eta, horren ondorioz, bizitzeko beste era bat eta jokabide berriak garatzen?

- **Mikel Navarro irakaslearen hitzaldia: "Berrikuntza eta *benchmarking*-eko lurralde estrategiak. Gogoetak Euskaditik"**

Hitzaldian, Mikel Navarro irakasleak berrikuntza sustatzeko lurralde estrategiez eta *benchmarking* azterketaz jardun zuen, Euskadiko egoera beren beregi aletuta. Hala, datu eta adierazle batzuetatik abiatuta, gurean lantzen den berrikuntza estrategia eta haren egokitasuna aztertu zituen, lurraldeko *benchmarking* ildoaren barruan kokatuta.

## ORIOL HOMS i FERRET: "PRESTAKUNTZAREN ERRONKEN ERAGIN EKONOMIKO ETA SOZIALAK DATOZEN URTEOTAN"

### 2011ko azaroaren 29an, Bilbon

Azaroaren 29an, batzordeak bere ekimenez sustatutako "Hezkuntza Sistema EAEko Jarduera Sozioekonomikoaren beharrizanetara egokitzea" izeneko azterlanaren aurkezpenaren ildoan, EGABk Tribuna antolatu eta Oriol Homs jaunak parte hartu zuen bertan, ondoko hitzaldia eskainita: "Prestakuntzaren erronken eragin ekonomiko eta sozialak datozen urteotan".

Hitzaldiaren harira, Oriol Homs-ek oraingo eraldaketa sozial eta ekonomikoek sorrarazten dituzten eraginez eta hezkuntza erronkez hausnartu zuen, era orokorrean. Joera horiek guztiak jasota daude EGABko presidente Juan María Otaeguik aurkeztutako azterlanean.

Azterlanaren arabera, EAEko biztanle ugarik goi-mailako prestakuntza edo behe-mailako prestakuntza dute, baina ehunekoak askoz txikiagoak dira derrigorrezko hezkuntzaren ondoko prestakuntza duten herritarrei dagokienez. Hala, gure erkidegoko egitura gehienbat industriala aintzat hartuta, egokiena hezkuntza piramidearen erdialdeko esparrua zabaltzea izango litzateke.

Bestetik, azterlanak argiro erakusten du desoreka nabaria badagoela bukatutako ikasketen artean eta lanbideen egituraren artean. Azterlanaren emaitzetan oinarri harturik, enpresen zuzendaritza eta herri administrazioak kategorian lan egiten duten pertsonen % 61,1ek eta laguntza teknikari eta profesional gisa lan egiten dutenen % 62,2k ez dutela unibertsitateko titulaziorik. Alabaina, unibertsitateko titulua dutenetatik % 18 prestakuntza-maila txikiagoa daukaten lanpostuetan ari dira. Gainera, administrazio izaerako lanpostuen %25,4 unibertsitateko ikasketak dituztenek betetzen dituzte.

Hezkuntza sistemara begiratuta, azterlanak dio etorkizuneko prestakuntzak malgua eta irisgarria izan behar duela eta, horrez gain, hainbat prestakuntza pasabide edo ibilbide gertatu behar direla pertsonek lanbide eta trebakuntza ezaugarri berrietara egokitzeko modua izan dezaten. Jakina denez, aipatutako malgutasuna eta irisgarritasuna laneratzeko prestakuntzaren esparruan ere landu beharko litzateke.

Alde batetik, lanbide gaitasun oinarrizkoak sendotu nahi dira eta pertsonen prestakuntza osatu, esate baterako, lantokiko prestakuntza sustatuz. Horrela, beharrezko gaitasuna duten pertsonak lehen enpleguan berehala hasteko moduan egongo lirateke eta, gainera, erraz moldatuko lirateke egoera aldakorrei.

Laneratzeko prestakuntzari dagokionez, prestakuntzak egungo beharrizan benetakoei erantzun beharko lieke. Bigarrenez, esan behar da prestakuntzak malgua eta irisgarria izan beharko lukeela enpresarentzat nahiz langilearentzat. Hirugarrenez, funtsezkoa da langileak jakin dezan zein prestakuntza jarduera diruz laguntzen den. Bestela esanda, Lanbideri buruzko eta diruz laguntzen diren ikastaroei buruzko informazioa helarazi behar zaio langileari.

Beste alde batetik, lan merkatuan unean-unean sortzen diren gaitasun beharrizanei (modu proaktiboan edo erreakziozkoan) erantzuteko tresnak erraztu eta bizkortzeko urratsak egin behar dira.

Unibertsitate sistemaz den bezainbatean, azterlanak dio sistemari berari buruzko gogoeta egin eta erantzun egin behar zaiela oraingo eta etorkizuneko eskakizun jakin batzuei. Ildo horretan, kontuan hartu behar da hobekuntza arlo batzuk lortzeko eragile nagusiak unibertsitateko kideak direla baina beste batzuk, aldiz, ez direla gauzatuko beste eragile ekonomiko eta sozial batzuek parte hartzen ez badute. Argi dago, beraz, gizarte osoak ahaleginak egin behar dituela helburuak betetzeko.




Bestalde, azterlana baliagarria izan da gaitasunen eskaintza zein eskaria zehatz-mehatz identifikatzeko zailtasunaz konturatzeko, bai eta adierazle horien bilakaeraz eta egokitzapenaz jakiteko. Azterlanaren arabera, zailtasun horiek gainditzeko behar-beharrezkoa litzateke informazio transferentzia ahalbidetzeko sistema bat (edo Enpleguaren behatokia) bi eginkizun betetze aldera: informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa hartu eta zabaltzeko tresna izatea eta gogoeta egin eta adostasuna lantzeko lanabesa izatea.

Aurrekoaren ildoan, azterlanak dio behatokiaren garapenak edo sendotzeak 'feedback' delakoa ekarriko liekeela enpresa, prestakuntza erakunde, herritar, herri eragile eta administrazioari, ondoko guztien gaineko informazio eguneratua eskuratzeko: enplegua, gaitasunak, laguntza baliabideak, lan bitartekaritza, prestakuntza eskaintza, gaitasunak aintzatetsi eta eguneratzeko sistemak... Hori dela eta, bilgune hori "erakundetzeko" beharrizana agerian jarri nahi izan da.

## III. KAPITULUA

# Erakundearen jarduera eta agerraldiak

# 1. Erakundearen jarduera

## URTARRILA

17 Europa Foruma. Arantza Quiroga, Eusko Legebiltzarreko burua. Nueva Economía Fórum erakundeak antolatuta. Presidentea bertan izan zen.

24 Euskadiko EGABko presidentea Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko presidentearekin bildu zen.

25 EGABko presidenteak Ecoeuskadi 2020, Garapen Jasangarrirako Estrategiaren barruko I. parte-hartze topaketetan parte hartu zuen.

26 Idazkari Nagusia Espainiako EGABko Erakunde Harremanetarako zuzendariarekin bildu zen.

28 Europa Foruma. Markel Olano, Gipuzkoako ahaldun nagusia. Nueva Economía Fórum erakundeak antolatuta. EGABko presidentea bertan izan zen.

28 Euskadiko EGABko presidentea Euskadiko Kooperatiben Konfederazioko presidentearekin bildu zen.

## OTSAILA

4 EGABko presidentea Lan Harremanen Kontseiluko presidentearekin bildu zen.

14 EGABko presidentea eta idazkari nagusia Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Ekintzako idazkari nagusi Guillermo Echeniquerekin bildu ziren.

18 EGABko presidenteak Ikerbasque erakundeko Batzorde Betearazleko presidenteak emandako "Zientzian inbertitzeko errentagarritasuna. oraingo eta etorkizuneko apustua" hitzaldian parte hartu zuen.

23 EGABko presidentea Enplegu eta Gizarte Gaien sailburu Gemma Zabaletarekin eta Lan, Prestakuntza eta Gizarteratze sailburuorde Javier Ruizekin bildu zen.

28 Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburua Bernabé Undak gonbidatuta, EGABko presidenteak "Zure hitzak inoiz baino gehiago balio du" Euskadiko enbaxadoreen galan parte hartu zuen. Patxi López lehendakariak jardun zuen ekitaldi horren buru.

## MARTXOA

8 Europa Foruma. Euskadi Tribuna. Bizkaiko Buru Batzarreko presidente Andoni Ortuzarren solasaldia. Nueva Economía Fórum erakundeak antolatuta. EGABko presidentea bertan izan zen.

21 Subsidiariotasunari buruzko 5. gailurra: "Subsidiaritatearen kontrola Lisboako Itunetik urtebetera: tokiko eta eskualdeko ikuspegiak", EBren Eskualdeen Batzordeak antolatuta, Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarrarekin lankidetzan. Bilbo. EGABko presidentea bertan izan zen.

23 EGABko presidenteak Europa Foruma-Euskadi Tribunaren barruan antolatutako informazio-gosarian parte hartu zuen, Arabako PSE-EEko idazkari nagusi eta Arabako ahaldun nagusi izateko hautagai Txarli Prietorekin. Patxi López lehendakariak aurkeztu zuen hautagaia.

25 Munduko eta Espainiako ekonomiaren gaineko egungo egoera eta etorkizunekoa. Ganberaren ostiralak. Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera. EGABko presidentea bertan izan zen.

30-31 EGABko presidenteak eta idazkari nagusiak Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen topaketan parte hartu zuten, Madrilen.

## APIRILA

1 Erakundeen parte hartze eta gizarte elkarrizketari buruzko jardunaldia, José Unanue fundazioak antolatuta. EGABko presidenteak aurkezpen ekitaldian parte hartu zuen. Bizkaiko Batzar Nagusietako ekitaldi aretoa.

4 Jose Guillermo Zubiari agurra. Presidentea eta idazkari nagusia bertan izan ziren.

7 Sabino Arana fundazioak antolatutako Iñigo Urkulluren hitzaldian izan zen EGABko presidentea.

11 EGABko presidenteak Europa Foruma-Euskadi Tribunaren barruan antolatutako informazio-gosarian parte hartu zuen, Nueva Economía Fórum erakundeak antolatuta. Antonio Basagoiti, Euskal Alderdi Popularreko presidentea.

Presidentea eta idazkari nagusia Confebask-eko ordezkariekin bildu ziren.

12 2010eko Jardueren Memoria eman genion Eusko Legebiltzarreko buru Arantza Quirogari.



| | |
|---|---|
| 13 | EGABko presidenteak "Ekonomia, finantza eta enpresen unea; Europa gehiago, garapen jasangarriaren bermea" izeneko enpresa arteko XXII. Batzarrean parte hartu zuen, ELKARGIk antolatuta. Kursaal jauregia. |
| 14 | Itsasoko energiei buruzko 4. nazioarteko jardunaldia, EVEk antolatuta. EGABko presidentea bertan izan zen. |
| 18 | EGABko presidentea Lehendakaritza Saileko Koordinazio zuzendari nagusi Virginia Múgicarekin bildu zen. |

## MAIATZA

| | |
|---|---|
| 3 | EGABko presidentea ENBAko ordezkariekin bildu zen. Martín Unzalu, Xabier Iraola eta Iñigo Bilbao izan ziren bileran. |
| 11 | EGABko presidenteak Ecoeuskadi 2020, Garapen Jasangarrirako Estrategiaren barruko II. parte-hartze topaketetan parte hartu zuen. |
| 11 | CEBEK erakundearen enpresa batzarra: "Krisialdiaren osteko ingurumari ekonomikoa: erantzun berriak erantzukizunetik, gardentasunetik eta jasangarritasunetik". Euskalduna jauregia. EGABko presidentea bertan izan zen. |
| 12 | Presidenteak Bretainia Handiko Merkataritza Ganberak antolatutako "EGAB gizartetik erakundeetarako komunikazio bide gisa" solasaldian parte hartu zuen. |
| 16 | Presidentea eta idazkari nagusia CCOO eta UGT sindikatuetako ordezkariekin bildu ziren. |
| 24 | Presidentea eta idazkari nagusia C) taldeko ordezkariekin bildu ziren. |
| 25 | Presidentea eta idazkari nagusia D) taldeko ordezkariekin bildu ziren. |
| 26 | ADEGIren Enpresa eguna. EGABko idazkari nagusia bertan izan zen. |
| 27 | Novia Salcedo fundazioa. Gazteak lanbideratzeko IV. Bikaintasun saria. Arriaga antzokia. EGABko presidentea bertan izan zen. |

## EKAINA

| | |
|---|---|
| 6 | EGABko presidentea eta idazkari nagusia Lan Harremanen Batzordeko presidentearekin eta idazkari nagusiarekin bildu ziren. |
| 9 | Idazkari nagusiak SEA-Arabako Enpresaburuen Elkartearen Batzar Nagusian parte hartu zuen. |
| 28 | "Euskal Herritar Unibertsala Saria 2010" Edurne Pasaban. EGABko presidentea izan zen banaketa-ekitaldian. |

## UZTAILA

| | |
|---|---|
| 1 | Europa Foruma. Mondragon Unibertsitateko errektore Iosu Zabalaren hitzaldia. EGABko presidentea bertan izan zen. |
| 8 | EGABko idazkari nagusia Enplegu eta Gizarte Gaien Saileko Zerbitzu eta Araubide Juridikoaren zuzendari Mª Victoria Portugalekin bildu zen. |

12 EGABko presidenteak EAEko 2010eko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu zion lehendakariari.



14 EAEko 2010eko Memoria Sozioekonomikoa aurkezteko ekitaldia. Itsas Museoa. EGABko presidentea eta idazkari nagusia bertan izan ziren.

18 Europa Foruma. Javier Rojo. Senatuko presidentea. EGABko presidentea bertan izan zen.

26-29 "Krisia eta eragile ekonomikoak: hazkundean dagoen munduko esparrua". Presidenteak parte hartu zuen EHU/UPVk antolatutako ikastaro horretan.

## IRAILA

7 EGABko presidenteak EHU/UPVren 2011-2012 ikasturtearen hasiera ekitaldi nagusian parte hartu zuen. Bizkaia Aretoa.

9 Deustuko Unibertsitateak 125 urte. Bilboko campuseko paraninfoa. EGABko presidentea bertan izan zen.

14 EGABko presidenteak Europa Foruma-Euskadi Tribunaren 2011-2012 ikasturtearen hasiera ekitaldian parte hartu zuen, Euzko Alderdi Jeltzaleko EBBko presidente Iñigo Urkullurekin batera.

20 EGABko presidentea Enplegu eta Gizarte Gaien sailburu Gemma Zabaletarekin bildu zen.

21 Bilbao Metrópoli 30-k antolatutako hitzaldia: "Ibilgailu elektrikoak dakarren aldaketa". EGABko presidentea bertan izan zen.

## URRIA

3 Presidenteak urte judizialaren hasiera ekitaldian parte hartu zuen.

5 EGABko presidenteak informazio gosari batean parte hartu zuen Bizkaiko

ahaldun nagusi José Luis Bilbaorekin.

10 Europa Foruma. Antonio Basagoitiren hitzaldia. EGABko presidentea bertan izan zen.

17 EGABko presidentea eta idazkari nagusia Lan Harremanen Batzordeko presidente eta idazkari nagusiarekin bildu ziren.

19 Europa Foruma-Euskadi Tribuna, Arabako ahaldun nagusi Javier de Andrésekin, Arabako ahaldun nagusi ohi Ramón Rabanerak aurkeztuta. EGABko presidentea bertan izan zen.

25 EAEko lehendakariak Euskadiren eguna dela eta egindako jaian izan zen EGABko presidentea.

27 Europa Foruma-Euskadi Tribuna Emilio Olabarria, Arantza Tapia eta Iñigo Urkullurekin, hots, Diputatuen Kongresurako Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako EAJren zerrendaburuekin. Presidentea bertan izan zen.

## AZAROA

2 Europa Foruma-Euskadi Tribuna, Ramón Jaúregui, Eduardo Madina eta Odón Elorzarekin, hots, Diputatuen Kongresurako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako PSEren zerrendaburuekin. Presidentea bertan izan zen.

3 Europa Foruma-Euskadi Tribuna, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburu Bernabé Undarekin. EGABko presidentea bertan izan zen.

EGABko presidenteak batzordearen ekimenez egindako azterlan bat aurkeztu zion Hezkuntza sailburuorde Isabel Celáari: “Hezkuntza Sistema EAEko Jarduera Sozioekonomikoaren beharrizanetara egokitzea”.

4 Presidentea eta idazkari nagusia Iñigo Lamarca arartekoarekin bildu ziren.

7-9 Bizialdi osoko ikaskuntzari buruzko nazioarteko biltzarra Kursaal jauregian. EGABko presidentea bertan izan zen.

8 Europa Foruma-Euskadi Tribuna Alfonso Alonso, Leopoldo Barreda eta José Eugenio Azpiroz, Diputatuen Kongresurako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako PPren zerrendaburuekin, Antonio Basagoitik aurkeztuta. Carlton hotela. EGABko presidentea bertan izan zen.

11 Europa Foruma- Euskadi Tribuna Enplegu eta Gizarte Gaien sailburu Gemma Zabaletarekin, PSEko presidente Jesús Eguigurenek aurkeztuta. Ercilla hotela. EGABko presidentea bertan izan zen.

## ABENDUA

1 EGABko presidentea Euskal Herriko Unibertsitatearen sorreraren 75. urteurrena ospatzeko ekitaldian izan zen.

13 Immigrazioaren aldeko Gizarte Ituna zabaltzeko jardunaldia. Eusko Jaurlaritza. Euskalduna jauregia. EGABko presidentea bertan izan zen.

## 2. Agerraldiak

2011. urtean, behean azalduko agerraldiak egin ziren Euskadiko EGABko organoen aurrean:

### 2011ko urtarrilaren 14a, Bilbo – Euskadiko EGABen egoitza

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburu Carlos Aguirre jaunak agerraldia egin zuen EGABen osoko bilkuraren aurrean, Euskal Auotnomia Erkidegoko 2011ko aurrekontu orokorrak aurkezteko.



### 2011ko urtarrilaren 24a, Bilbo – Euskadiko EGABen egoitza

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Plangintza, eta Proiektu Eragileen zuzendari Mario Yoldi jaunak agerraldia egin zuen EGABen Gizarte Garapenerako Batzordearen aurrean, 2010-2013 aldiko Etxebizitza eta Hirien Leheneratzerako Plan Artezkaria aurkezteko. Saileko aholkulari Ana Tellería andrea ere bertan izan zen.



### 2011ko otsailaren 2a, Bilbo – Euskadiko EGABen egoitza

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendari Alfonso Gurpegui jaunak agerraldia egin zuen EGABen Gizarte Garapenerako Batzordearen aurrean, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen garapen osagarria azaltzeko.



### 2011ko martxoaren 16a, Bilbo – Euskadiko EGABen egoitza

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien sailburu Gemma Zabaleta andreak agerraldia egin zuen EGABen osoko bilkuraren aurrean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako lege berriaren zirriborroa azaltzeko.



### 2011ko maiatzaren 4a, Bilbo – Euskadiko EGABen egoitza

Tecnalia-ko zuzendari nagusi Joseba Jauregizar jaunak eta Lehendakaritza Kabineteko zuzendari Pedro Hernández jaunak agerraldia egin zuten EGABen batzorde iraunkorraren aurrean, Tecnalia korporazioaren estrategia aurkezteko.

### 2011ko irailaren 21a, Bilbo – Euskadiko EGABen egoitza

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Plangintza eta Proiektu Eragileen zuzendari Mario Yoldi jaunak agerraldia egin zuen EGABen Gizarte Garapenerako Batzordearen aurrean, Etxebizitzari buruzko Legearen aurreproiektua aurkezteko. Etxebizitza sailburu Mª Paz Larrumbide andrea, Lurzoru eta Hirigintza zuzendari Rafael B. Farias jauna eta Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol zuzendari Ignacio de la Puerta jauna ere bertan izan ziren.

### 2011ko azaroaren 14a, Bilbo – Euskadiko EGABen egoitza

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun sailburu Carlos Aguirre jaunak agerraldia egin zuen EGABen osoko bilkuraren aurrean, Euskal Auotnomia Erkidegoko 2012ko aurrekontu orokorrak aurkezteko.

### 2011ko abenduaren 16a, Bilbo – Euskadiko EGABen egoitza

Eusko Jaurlaritzako Lurzoru eta Hirigintza zuzendari Rafael Farias jaunak agerraldia egin zuen EGABen Gizarte Garapenerako Batzordearen aurrean, Hirigintza Estandarren Dekretuaren proiektua aurkezteko.

# IV. KAPITULUA

# Jarduera Europako lankidetza esparruan

## 1. Aldebiko lankidetza Akitaniako CESRrekin

Euskadiko EGAB alde biko lankidetza harremanetan dabil Conseil Economique et Social Régional d´Aquitaine erakundearekin (Akitania eskualdeko EGABrekin) eta, horri esker, etengabeko elkarrizketa landu eta baterako ikuspegia darabilte EAEko eta Akitaniako eskualdeentzat interesgarriak diren gaiei dagokienez.

Lehen lan batzordea 2004. urtean sortu zen. Batzorde horretan, bi EGABetako batzordekideek parte hartzen dute eta, hasteko, EAE eta Akitaniaren arteko hurbiltasun turismoaren bultzadari ekin zioten, jasangarritasun irizpideei jarraiki. Horrez gain, bi eskualdeen eskaintza turistiko erkidea landu zuten beste merkatu batzuei begira.

Geroago, 2007. urtean, hain zuzen ere, berriro ekin zioten lanari eta garraioaren esparrua lantzen hasi ziren, Akitania eta EAEren arteko ondasun eta pertsonen zirkulazioa eragozten duten oztopoak konpondu eta garraiobideak hobetzeko proposamenen ildoan, betiere Europa eta penintsula iberikoaren arteko harremanetan giltzarria den zirkulazio handiko mugaldeko eremua dela kontuan hartuta. Oztopoak identifikatu, hala nola, linea, zerbitzu, azpiegitura, bateragarritasun eta alde bien arteko garraio moduen ingurukoak, eta identifikatutako oztopoak konpontzeko proposamenak zehaztuko ditu lan batzorde horrek.

2009. urtean bidaiarien aldiriko garraioari buruzko agiria plazaratu zen eta 2010. urtean gogotik lan egin zuten batzordekideek merkantzien esparruaren arloan.



Beste alde batetik, Euskadiko EGABk eta Akitaniako EGABk parte hartu dute Europako Batzordeak sustatutako kontsulta batean, hain zuzen ere, **Europa barruko Garraio Sareei buruzko Politika Berrikusteko Kontsultan (RTE-T).** 2009. urteko Liburu

Berdean ere ekarpen bat egin zuten eta, horren ondotik, 2010. urtean, ekarpen bat egin zuten 2010eko maiatzaren 4ko Kontsulta Dokumentuan.

Lan horiez arduratu den Euskadiko EGABko lantaldeak eginiko barruko bilerez gain, Euskadiko EGABen eta Akitaniako EGABen ordezkaritzen lantalde bateratua Bordelen batu zen otsailaren 10ean eta 11n; Donostian, ekainaren 27an eta 28an; eta berriro Bordelen, azaroaren 15ean eta 16an:

### Bordele, 2011ko otsailaren 10 eta 11

Jardunaldien hasieran, batzordekideek Bordeleko portua bisitatu zuten; bisitaldi horretan portuko instalazio garrantzitsuenak ikusi zituzten eta itsas trafikoa areagotzeko ahaleginez jakin zuten. Lan jardunaldietan, Akitaniako DREAL (Direction Régionale de l'Environnement, de l'Aménagement et du Logement) erakundeko arduradunek parte hartu zuten, eta Pirinioetan zeharreko bidaiarien joan-etorriei buruzko datuak azaldu zituzten. Bestetik, RFF (Réseau Ferré de France) erakundeko arduradunek Frantziako abiadura handiko trenbide berriaren egoeraren berri eman zuten.

Bordeleko bilgunea baliatu zuten laster eratuko den Euskadi-Akitania euroeskualdeari buruzko gaiak jorratzeko eta, era berean, bi batzordeen parte-hartzeari buruzko ideiak trukatzeko.

### Donostia, 2011ko ekainaren 27 eta 28a

Lan jardunaldi horiei hasiera emateko, Beasaingo CAF enpresa bisitatu zuten. Hala, bi batzordeetako ordezkariek trenbide sistementzako ekipo eta osagaiak diseinatzen, ekoizten, mantentzen eta hornitzen punta-puntakoa den enpresa horretako instalazioak eta funtzionamendua ezagutu zituzten.

Lan saioetan, berriz, RFF (Réseau Ferré de France) erakundeko ordezkariek Hego-mendebaldeko Proiektu Handiei buruzko azterlanak aletu zituzten. Proiektu horien artekoa dugu, esate baterako, Frantziako trenbide berriaren eta euskal Y-aren arteko lotura. Azterlanok bidaiarien nahiz merkantzien trafikoen inguruko proiekzioak lantzen dituzte 2020. urtera arte. Era berean, Uniport Bilbao erakundearen parte-hartzea dela eta, Bilboko portuaren eta lehorraren arteko loturak jorratu ziren, batik bat, portuko merkantzien trafikoa eta aldiriko bidaiarien zirkulazioa batera ibiltzeak dakartzan arazoak.

### Bordele, 2011ko azaroaren 15 eta 16a

Jardunaldi horietan, batzordekideek Bordeleko tren geltoki nagusiaren (Gare Saint Jean) trenbideen kontrolgunea bisitatu zuten. Bi egun horietan, garraiobideak eta azpiegiturak (errepidekoak zein trenbidekoak) optimizatzeari buruzko zenbait aurkezpen egin ziren. Batzordekide guztien bileran, baterako lanez hausnartu zuten eta aurrera begirako lan ildoen inguruko erabakiak hartu zituzten, bai eta azken dokumentua noiz amaitu behar zuten adostu ere. Dokumentu horretan jasoko diren ondorioetan oinarrituta, bi batzordeen proposamenak eta gomendioak plazaratuko dira.

# 2. Lankidetza Esparru Atlantikoan

## NAZIOZ GAINDIKO SARE ATLANTIKOA (RTA/ATN)

Euskadiko EGAB Ekonomia eta Gizarte Kontseiluen eta Eremu Atlantikoaren barruko antzeko antolakundeen plataformako kidea da. Plataforma horri Nazioz Gaindiko Sare Atlantikoa deritzo. Sarearen eginkizun nagusiak dira, batetik, eskualdeen arteko lankidetza proiektu eta politikak bultzatzea, eremu atlantikoan dauden eskualdeen lehiakortasuna, gizarte kohesioa eta lurralde kohesioa lantzeko, eta bestetik, eremu horrentzako gai jakingarriak aztertu, zabaldu eta erabakimena duten organoetara helaraztea, bereziki Europako Batasunaren organoetara. Ondoko eskualde hauetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak ere sareko partaideak dira: Kantabria, Galizia, Kanariar uharteak, Akitania, Poitou-Charentes, Pays-de-la-Loire, Bretainia, Behe Normandia, Limousin, Erdialdeko eskualdea, eta Gales herriko foro ekonomikoak eta Instituto de Soldadura e Qualidade, ISQ.

2010eko ekainean, EBren Batzordeak Europako Itsas Estrategia eremu atlantikoan gara zezala eskatu zion Europako Batzordeari. Handik hona, RTA sareak ahalegin betea egin du aipatutako estrategiari lotu ahal zaizkion gai guztietan, estrategia garatzen laguntzeko eta ekintza plana nahiz proiektu esanguratsuak diseinatzen elkarlanean aritzeko.

**Itsasoko energia berriztagarriak** jorratu ziren 2009-2010 ekitaldian argitaratutako azterlan batean. Bertan, energia horien garapen osoa eragozten zuten auzi teknologikoak, sozialak, ekonomikoak, juridiko eta administratiboak, ingurumen arlokoak... aztertu ziren. 2011. urtean, azterlan horretako alderdi aldakorrenak eguneratzeko lehen urratsak egin dira.

Era berean, garraio intermodalari buruzko gaiak ere jorratu eta eguneratu ditu sareak. Ildo horretan, **itsas eta portu garraioari** lotutako alderdiak lehenetsi ditu, berebiziko garrantzia baitute Estrategia Atlantikoa garatzeko xedez.

RTA sareak Europako Batzordearen kontsultari eginiko ekarpena lan handiago baten oinarria da. 2011ko azaroaren 21eko komunikazioak argitara eman zuen aipatutako lan hori: "Itsas estrategia baten sustapena Ozeano Atlantikoaren eremuan".

RTA sareak identifikatutako lehentasunezko esparruak honako hauek dira:

- Itsas garraioa eta lehorreko loturak.
- Itsasoko baliabideen aintzatespena.
- Atlantikoa, Europako atea eta Afrika eta Amerikarako sarbidea.
- Itsas ingurunearen gaineko ikerkuntza, berrikuntza, prestakuntza eta zabalkundearen garapena, funtsezkoak baitira itsasoa zaintzeko eta haren balio ekonomikoa aitortzeko .
- Ekonomia, gizarte eta ingurumen ikuspegia lantzea garapen jasangarriaren ildotik.

Lan berriek bi norabide hartu dituzte. Alde batetik, Foro Atlantikoaren barruan, badaukagu RTA sarearen ekarpena lehentasunezko lan ildoak eta garapen proiektuak zehazten, Europako Eremu Atlantikoko Itsas Estrategiari atxikita. Beste alde batetik, sareak lanean dihardu eskualde askotako estrategia zehazten eremu atlantikoaren barruan, itsasoko ardatza nahiz lehorreko ardatza aintzat hartuta. Lan horren bitartez, sarearen ikuspegia agertu eta Ekonomia eta Gizarte Batzordearen gonbitari erantzun nahi dio gai honen inguruko irizpenaren inguruan.

Ingurumari horretan, azpimarratzekoa da Euskadiko EGABen parte-hartzea RTA sareko EGAB atlantikoekin batera, azaroaren 28 eta 29an. Lan saio horietan, Europako Batzordeko MARE Zuzendaritza Nagusiak gertatutako Europako Eremu Atlantikoko Itsas Estrategia aurkeztu zen Lisboan. Estrategia horrek badakar lankidetzan aritzeko eta Europako Batasunean politikak taxutzeko era berria. Europako Estrategia Itsaso Baltikoaren ekimenarekin hasiko da sektore askotariko esparru estrategiko eta bateratu batean, eta eskualde askotako lurraldeei edo itsas nahiz ibai arroei agertzen zaizkien erronkak eta aukerak eraginkortasunez eta lankidetzaz jorratzeko politikak eta jarduerak jasotzen dira bertan.

Estrategia aurkeztu eta gero, ekintza plana taxutu beharko da, lehentasunezko arloak zehaztu eta proiektu behinenak prestatu, estrategian finkatutako helburuak betetzeko. Proiektuok Europako egitura funtsen bidez eta estrategian parte hartzen duten arloko politiken berariazko funtsen bidez finantzatuko dira. Ekintza planaren jarraipenaz, berriz, Lisboan iragarritako Foro Atlantikoa arduratuko da eta bertan Atlantikoko erakunde eta arlo askotako eragileek parte hartuko dute.

2011. urtean, RTA sareak **Hausnarketa Mintegia** antolatu zuen sarearen lan eta funtzionamenduaren inguruko gaiez eztabaidatzeko. Mintegia Bordelen egin zen, martxoaren 3 eta 4an.

Mintegiak hiru gai jorratu zituen: RTA sarearen eta haren jardueren ikusgarritasuna Europako erakundeen aurrean, sarea hedatzeko aukera Britainia Handiko eta Portugalgo eragile ekonomiko eta sozialetara, eta balia daitezkeen forma juridikoak nazioz gaindiko lankidetza antolakundeek izaera juridikoa eskuratu dezaten. Mintegian, sareko kide diren EGABetako eta eskualdeetako ordezkariez gain, Europako erakundeetako ordezkariak eta aztergaien inguruko adituak izan ziren, azkenen informazio eta eskarmentu baliotsua jaso eta geroko erabakiak prestatzen hasteko harremanak lantzearren.

Hasierako ekitaldian, RTA sarearen ia hamar urteko ibilbideari buruzko balantze guztiz positiboa egin zen. Saio horretan, sarearen sorreran parte hartu eta lehen urteetan zuzendu zutenek hitz egin zuten. Europako Batzordeko MARE Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak ere bertan izan ziren, eta RTA sarearen lan berrienak hartzeaz gain, argi geratu zen Europako Batzordearentzat garrantzi handikoa dela eskualdeetako aholku foroen iritzia –gobernu eta erakundez kanpokoena, alegia– jakitea bere jarduerak garatzeko. Era berean, RTA sarearen lanen ekarpenaren garrantzia ere nabarmendu zen, itsasoko energien bereizgarri atlantikoak

identifikatzen egindako lanagatik eta beste itsas eremu batzuetan ezarritako teknologietatik bereizitako Europako laguntza jasotzeko beharrizanak azaleratzeagatik.



Martxoan, 2010eko azaroan behin-behinekotasunez izendatutako RTA sarearen gobernu organoen izendapen ofiziala egin zen. Ekitaldi horretan, ondokoen izendapena berretsi zen: Luc Paboeuf, Akitaniako EGABko presidentea, RTA sareko zuzendari. Pablo Egerique eta, geroago, Galiziako EGABko presidentearen ondorengo Corina Porro lehen presidenteordea izango da. ISQ erakundeko Joao Paulo Duarte, aldiz, bigarren presidenteordea izango da. Jean Pierre Limousin, Limousingo EGABko presidentea, hirugarren presidenteordea izango da eta, azkenik, Juan Mª Otaegui, Euskadiko EGABko presidentea, laugarren presidenteordea izango da.

## RTA SAREAREN BILERAK 2011N

RTA sarearen organo gorenek, hala Zuzendaritza Batzordeak, nola Osoko Bilkurak eta Orientazio Batzordeak ondoko bilerak egin dituzte:

### Madril, 2011ko urtarrilaren 18a. RTAren Zuzendaritza Batzordearen bilera

Zuzendaritza Batzordeak Orientazio Batzordearen prestatze-lanak jorratu zituen, bereziki RTA sarearen martxoaren 3 eta 4ko mintegian antolatutako mahai-inguruei buruzkoak.

### Telekonferentzia, 2011ko otsailaren 14a. RTAren Zuzendaritza Batzordearen bilera

Zuzendaritza Batzordeak hurrengo Orientazio Batzordearen prestaketa eta 2011ko martxoko hausnarketa mintegiaren antolaketa jorratu zituen; horren haritik, kapitulu bakoitzaren uneko egoera eta finantza alderdiak aztertu zituen.

### Telekonferentzia, 2011ko otsailaren 21a. RTAren Zuzendaritza Batzordearen bilera

Zuzendaritza Batzordeak Orientazio Batzordearen eta martxoaren 3 eta 4ko hausnarketa mintegiaren nondik norako nagusiak berrikusi zituen.

### Bordele, 2011ko martxoaren 3 eta 4a. Orientazio Batzordearen bilera

RTA sareko organo gorenak Atlantiko itsasoko energia berriztagarriei buruzko azterlana eguneratu eta horren zabalkundea hedatzeko erabakia hartu zuen. Bestalde, Arku Atlantikoaren Batzordeak sustatzen dituen INTERREG proiektuetako kide izateko erabakia hartu zuen. Hain zuzen ere, aipatu batzordeak bultzatutako bi ekimenetan parte hartuko du RTA sareak: CFM-EFFIPLAT trenbide korridore atlantikoa sustatzeko proiektuan eta itsasoko energia berriztagarriak sustatzeko proiektuan (Atlantic Power Cluster). Aurrekoez gain, RTA sarea zabaldu eta Portugalgo, Erresuma Batuko eta Irlandako kide osagarriei kidetzeko eskaintza egiteko lan egin beharko zutela agindu zen bilkuran. Berezko izaera juridikoa eskuratzeko forma juridikoei dagokienez, hainbat formaz eztabaidatu zuten eta malguenak zein konplexutasun txikienekoak lehenetsi ziren. RTA sarearen Antolakuntza Gutuna aldatzeko proposamena egiteko erabakia hartu zen, berariazko alderdi batzuk berridazteko, eta 2010eko azaroan behin-behinekotasunez izendatutako RTA sarearen gobernu organoak izendatu ziren.

### Telekonferentzia, 2011ko martxoaren 18a. RTAren Zuzendaritza Batzordearen bilera

Zuzendaritza Batzordeak martxoaren 3 eta 4ko Orientazio Batzordearen eta hausnarketa mintegiaren balorazioa egin zuen eta Orientazio Batzordeak hartutako erabakiak gauzatzeko urratsak egin daitezen agindu zuen.

### Telekonferentzia, 2011ko apirilaren 6a. RTAren Zuzendaritza Batzordearen bilera

Zuzendaritza Batzordeak INTERREG lankidetza proiektuetan parte hartzeko eskaera bete eta izapideak bideratzea erabaki zuen. Arku Atlantikoaren Batzordeak bultzatzen ditu proiektuok eta halako bitan kidetzea adostu zen: garraioa eta itsasoko energia berriztagarriak.

### Arroxela, 2011ko ekainaren 9a. RTAren Zuzendaritza Batzordearen bilera

Zuzendaritza Batzordeak RTA sareak egindako ekarpena landu zuen Arku Atlantikoaren Batzordearen Europako Nazioz Gaindiko Sarearen (RTE-T) berrikuspen dokumentuan txertatzeko. Beste alde batetik, RTA sareak abian zeuzkan ekimenen egoera aztertu zuen: sarearen parte-hartzea estrategia atlantikoan, lantaldeen jardunbidea, antolakuntza gutunaren aldaketa, izaera juridikoa, sarearen hedapena.

### Telekonferentzia, 2011ko uztailaren 11. RTAren Zuzendaritza Batzordearen bilera

Zuzendaritza Batzordea hurrengo Orientazio Batzordea prestatzen hasi zen. Orientazio Batzordea urrian egitekoa zen RTA/ATN sareak abian dituen ekimenen egoera aztertzeko.

### Telekonferentzia, 2011ko irailaren 16a. RTAren Zuzendaritza Batzordearen bilera

Zuzendaritza Batzordeak behingoan finkatu zuen urriaren 24ko Orientazio Batzordearen aztergaien zerrenda eta aurrekontuko alderdiak aztertu zituen. Lantaldeen jardunbidea eta Orientazio Batzordeak erabaki beharreko auzien gaineko prestatze lana berrikusi ziren.

### Baiona, 2011ko urriaren 24a. Orientazio Batzordearen bilera

RTA sarearen osoko bilkuraren gai nagusia Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kide Luis Miguel Parizaren agerraldia izan zen. Parizak, Eskualde askotako Estrategia Atlantikoaren inguruko ekimenaren irizpenaren txostengilea den aldetik, laguntza eskatu zion RTA sareari txostena egiteko. RTA sareko EGAB guztiak bat etorri ziren Europako EGABen proposamenarekin eta Europako erakundearekin elkarlanean aritzea erabaki zuten. Horretarako, ekarpenak aurkeztuko dituzte martxoan Bilbon egingo den entzute saioan. Era berean, itsas garraioari dagokionez, garraioen intermodalitateari buruzko azterlana (2006) eguneratzea erabaki zen eta RTA sarearen antolakuntza gutunaren aldaketak, gobernu organoen izendapen eta iraupenari dagozkionak eta Portugalgo, Erresuma Batuko eta Irlandako antolakundeei sartzeko aukera emanez, sarea hedatzeari buruzkoak, adostu ziren.

### Telekonferentzia, 2011ko azaroaren 8a. RTAren Zuzendaritza Batzordearen bilera

Orientazio Batzordeak hartutako erabakiak gauzatze aldera, Zuzendaritza Batzordeak Portugalgo, Erresuma Batuko eta Irlandako kide berriak sartzeko estrategiaren nondik norakoak aletu zituen. Bestalde, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordera bidaltzeko lanak, estrategia atlantikoari buruzkoak, prestatu zituen, estrategia aurkezteko helburuz azaroaren 28 eta 29an Lisboako batzarrean izango den parte-hartzea, itsasoko energia berriztagarrien eta itsasoko garraioaren inguruzko azterlanak eguneratzeko moduak eta RTA sarearen web gune berriaren kontratazioa aztertu zituen.

### Telekonferentzia, 2011ko abenduaren 12a. RTAren Zuzendaritza Batzordearen bilera

Zuzendaritza Batzordeak RTA sareak Lisboako batzarrean izandako parte-hartzearen balorazioa egin zuen eta bertan landutako harremanak, batzarrean inauguratu zen Foro Atlantikoari egindako ekarpena eta 2012ko martxoan egingo den Europako EGABen entzute saioan prestatu beharreko lanak aztertu zituen.

### Itsasoko Energia Berriztagarriei buruzko Lantaldea

Orientazio Batzordeak sortu zuen lantaldea 2008an eta urte horretako ekainean bertan hasi zen lanean. Lantaldearen eginkizunak honakoak dira: itsasoko energia berriztagarriak eskualde atlantikoetan garatzeko oztopoak identifikatzea: oztopo juridikoak, oztopo administratiboak, ekonomia, gizarte eta ingurumen arlokoak; bestetik, lantaldeak gomendioak eman behar ditu aipatutako oztopoak gainditzeko eta ozta-ozta ustiatu den eremu atlantikoko baliabide energetikoak eta sozioekonomikoak baliatzeko. Estrategia Atlantikoari lotutako gaien garrantzia dela eta, gai horren inguruko jarduerak Europako Estrategia Atlantikoari buruzko lantaldean txertatu dira.

### Europako Estrategia Atlantikoari buruzko Lantaldea

Zuzendaritza Batzordeak sortu zuen lantaldea 2010ean eta urte horretako urrian bertan hasi zen lanean. Lantaldeak burututako lanen helburuak ondokoak izan dira:

RTA sarean parte hartzen duten eskualde atlantikoetako eragile ekonomiko eta sozialen ekarpena lantzea Europako Batzordeko MARE Zuzendaritza Nagusiak Europako Estrategia Atlantikoari buruz egindako kontsultan txertatzeko. Ekarpen horretan, estrategiak etorkizunean erantzun beharreko erronka nagusiak jaso behar dira. Estrategia Atlantikoaren taxuketa eta garapena ibilbide luzeko egitasmoa da eta, beraz, kontsultak ez du inola ere horretako parte-hartzea agortzen. Gainera, lantaldeak gogoz parte hartu nahi du estrategian. Lantaldeak berriro ekin dio lanari 2011ko udazkenean, Europako EGABen Estrategia Atlantikoari buruzko lanetan egin beharreko ekarpena lantzeko eta RTA sarearen partaidetza zehazteko Europako Batzordearen MARE Zuzendaritza Nagusiak 2011ko azaroan argitaratu zuen itsas estrategiaren garapenean.

Akitaniako EGABk presidente lanetan dihardu eta lanen egilea da.

Lantaldean, honako hauek jarduten dute Euskadiko EGABko ordezkaritzan:

- Titularra: Arantza López de Munain, RTA sarearen koordinatzailea.
- Adituak: Ignacio Barrenechea eta Roberto Bermejo, D Taldeko aholkulariak.

## ARKU ATLANTIKOAREN BATZORDEA

Euskadiko EGAB Arku Atlantikoaren Batzordearen batzar nagusietan parte hartu zuen, Arroxelan, ekainaren 9an eta 10ean, eta Aarhusen, irailaren 28an. Arroxelako bileran, batik bat, Europako Estrategia Atlantikoa jorratu zen, orduan prestatze lanetan zela. Europako Batzordeko ordezkariek esan zuten handik lasterrera argitaratuko zela eta estrategiaren alderdi batzuk azaldu zituzten, hala nola, balioztatu beharreko bereizgarriak itsas ezaugarriei dagokienez eta etorkizuneko erronkak. Aarhus hirian, berriz, estrategia aurkezteko ekitaldia (2011ko azaroan, Lisboan) nagusi izan zen eztabaidetan. Arku Atlantikoaren Batzordeak ez nahikotzat jo zuen eskualde atlantikoetako agintari politiko eta eragile ekonomiko eta sozialen parte-hartzea aurreikusitako hitzaldietan, areago kontuan izanda eskualde atlantikoek eta Arku Atlantikoaren Batzordeak sekulako lana egin dutela estrategiaren alde eta, zer esanik ez, garrantzi handiko eginkizuna bete dutela estrategiaren edukiak prestatzen. Aurkezpen ekitaldian sortzen diren gogoeta lantaldeetan parte hartze egokia prestatzeko neurriak hartzea erabaki zen.

2008. urtetik aurrera, Arku Atlantikoaren Batzordearen eta RTA sarearen arteko lankidetza bideak antolatu dira eragile atlantikoen sareko lana sustatzeko xedez. Hala, RTA sarea lanean hasi da Arku Atlantikoaren Batzordearen Koordinazio Batzordean eta batzorde horren lantaldeetan.

Euskadiko EGABk RTA sarearen ordezkaritzan dihardu Garraio eta Itsasoko Energia Berriztagarrien lantaldeetan.

2010. urtean, Euskadiko EGABk parte hartu du Arku Atlantikoaren Batzordearen Garraio lantaldeak egindako bileretan, otsailaren 22an Lisboan eta apirilaren 13an Bruselan. Bilerei esker, sareko kide diren eskualdeen garraio politika eta egitasmo

nagusiak ezagutzera eman dira eta Europako Erkidegoaren garraioari buruzko gaiak berrikusi dira. Zehatz-mehatz esanda, Europa barruko Garraio Sareen azterketa egin eta eremu atlantikoarentzat interesgarriak diren komunikazio ardatzak horietan txertatu dira. Era berean, Europako lankidetza proiektua prestatu da trenbide eta portu korridore atlantikoa sustatzeko eta korridore atlantikoan dauden plataforma logistikoen sarearen eraginkortasuna hobetzeko helburuz. Lankidetza proiektu hori onetsi da eta Europako funtsez finantzatuko da. Euskadiko EGABk RTAsarearen ordezkaritzan dihardu sareko kide den aldetik.

Arku Atlantikoaren Batzordearen Itsasoko Energia Berriztagarrien lantaldearen jarduerei dagokienez, Euskadiko EGABk itsasoko energia eolikoari buruzko jardunaldi batean parte hartu zuen. Jardunaldia Bremerhaven hirian egin zen maiatzaren 30 eta 31n, Wind Power Cluster proiektuaren baitan.

## EUROPAKO ITSASALDEKO ESKUALDE PERIFERIKOEN BILTZARRA ETA ARKU ATLANTIKOAREN BATZORDEA

Biltzar horrek Europako itsasaldeko 157 eskualde batzen ditu eta helburu nagusi dauka Europako Batasunaren garapen orekatua sustatzea, eskualde horietako aktiboak balioztatuz, Europa eratzeko prozesuan eskualdeen parte-hartzea bultzatuz eta Europako agintariak sentiberatuz Europako itsasaldeko eskualde periferikoen bereizgarritasun eta beharrizanei buruz, Europako eraketaren testuinguruan.

Biltzarra sei batzorde geografikotan banatzen da eta batzorde horietako bat Arku Atlantikoaren Batzordea dugu. Batzordeotako kide dira biltzarrarekin bat egin duten eskualdeetako agintaritzen ordezkariak eta eskualdeetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak. 2008. urtetik aurrera, lankidetza bideak gertatu dituzte RTA sarearen bitartez, eta Batzar Nagusiaren, Koordinazio Batzordearen eta Lantaldeen lanetan parte hartu dute.

Euskadiko EGABk Itsasaldeko Eskualde Periferikoen Biltzarraren batzar nagusian parte hartu zuen, irailaren 29 eta 30ean, Aarhus hirian. Jardunaldi horietan, Europak egun dauzkan erronkez eztabaidatu zen gehienbat, hain zuzen ere, krisialdi ekonomikoaz, EBren urte anitzeko (2013-2020) finantza esparru berriaren barruko negoziaketez, aldi horretarako kohesio politikaren aldaketaz eta erkidegoaren politika esanguratsuenen bilakaeraz.

# 3. Lankidetza Europako beste EGAB batzuekin

## LANKIDETZA EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREKIN

Uztailaren 20an, Europako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko presidente Luis Miguel Pariza jaunak Euskadiko EGAB bisitatu zuen, berak zuzentzen duen erakundearen ekimenez sustatu den ekimen bat aurkezteko. Ekimen horren funtsa Europako Estrategia bati buruzko irizpena egitea da Eskualde Atlantikoarentzat eta Pariza jauna horren txostengilea izango da. Pariza jaunak entzute saio bat Bilbon egitea proposatu du, Euskadiko EGABrekin lankidetzan, irizpena gertatzeko lanen esparruan. Izan ere, eskualdeetako eragile ekonomiko eta sozialen ikuspegia nagusi izatea da asmoa. hain zuzen ere, RTA sareak (Euskadiko EGAB sare horretako kide da) berariazko espazioa izango luke lan horietako ekarpena egiteko.

Euskadiko EGABk jardunaldi horiek antolatzen laguntzea erabaki du. Era berean, batzordekideek erabaki dute txostenaren alderdi teknikoetan laguntzea, Europako EGABko aditu gisa eta irizpena idazteko eginkizunei atxikita.

## FRANTZIA-ESPAINIA-ANDORRA 2007-2013 LURRALDE LANKIDETZA PROGRAMA

Euskadiko EGAB Frantzia-Espainia-Andorra 2007-2013 Lurralde Lankidetza Programaren Jarraipen Batzordeko kidea da, Espainia-Frantzia-Andorra 2007-2013 Mugaz haraindiko Lurralde Lankidetzako programa eragilean bertan eta Jarraipen Batzordearen barne araudian ezarritakoei jarraiki. Araudi horiek beren beregi ezartzen dute, aholku-izaeraz ezarri ere, ondoko eskualdeetako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen parte-hartzea: Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Aragoi, Katalunia, Errioxa, Akitania, Midi-Pyrénées eta Languedoc-Roussillon. Horiez gain, honako hauek dira batzorde horretako kide: Pirinioetako Lan Erkidegoa, kudeaketa agintari legez, Europako Batzordea, aholku-izaeraz, Frantzia eta Espainiako agintarien ordezkaritza parekidea, eta horren barruan, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa, Aragoi, Katalunia eta Errioxa, Estatuaren Administrazio Orokorra eta Ingurumen arloko agintarien sarea. Frantziako ordezkaritzan, ondokoek parte hartzen dute: Akitania, Midi-Pyrénées eta Languedoc-Roussillon eskualdeetako kontseiluak, eskualdeetako prefeturak, Ariège, Haute-Garonne, Hautes-Pyrénées, Pyrénées-Atlantiques eta Pyrénées-Orientales eskualdeetako kontseilu nagusiak eta prefeturak, ingurumen agintaritza eta Commissariat de Massif à l´Aménagement des Pyrénées. Jarraipen batzordearen eginkizunak, funtsean, ondokoak dira: programaren helburuen betetze maila aztertzea, finantzatzeko helburuz aurkezten diren proiektuak hautatzeko irizpideak

aztertu eta onartzea, gauzapen emaitzak aztertzea eta programa berrikusteko proposamena egitea.

Horiek horrela, Euskadiko EGABk Jarraipen Batzordearen ondoko bileran parte hartu du:

### Jaca, 2011ko ekainaren 22a

Jacako bileran, programaren hainbat deialdiri lotutako auziak aztertu ziren. Programa EBn eta jendearen artean ikusarazteko informazio eta publizitate neurrien emaitzak neurtzeko behin betiko txostena aztertu eta onetsi zen. ekintza hori behar-beharrezkotzat jotzen zen balizko onuradunen programaren gaineko jakintza beste programa batzuen gainekoa baino nabarmen txikiagoa baitzen. Hala ere, bigarren deialdian, hautagaitzak aurkeztu dira programaren baliabideen kopurua halako hiru. Ordaintzeko epearen etenaldia alderdi kezkagarriena da, ordainketa ezin izango baita agindu beharrezko ikuskaritza kontrolak gainditzen direnetik aldi batera. Uda sasoian ahalegina egiteko konpromisoa hartu zuten batzordekideek, eta ikuskaritza txostenak beteta Europako Batzordera bidaliko zituztela adostu zuten.

# V. KAPITULUA

# Giza-baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa

# 1. 2011ko aurrekontua

2011ko ekitaldian, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen gastuen aurrekontuak 2.138.603,85€-ko hornidura izan du. Hornidura horren zenbatekoa honela finantzatu da: 1.729.355 € EAEko aurrekontu orokorren kargura, 394.248,85€ aurreko ekitaldietako soberakinen kargura eta 15.000,00 € finantza sarreren kargura.

2011ko gastu eta sarreren aurrekontu arrunta honela banakatu zen:

| | AURREKONTUKOA | GAUZATUTA | MAILA |
|---|---|---|---|
| **2011ko GASTUAK** | **2.138.603,85** | **1.601.966,59** | **74,91%** |
| I. kapitulua: Langileria gastuak | 895.652,48 | 657.201,59 | 73,38% |
| II. kapitulua: Funtzionamendu gastuak | 663.634,65 | 544.797,35 | 82,09% |
| III. kapitulua: Finantza gastuak | 60,00 | 0,00 | 0,00% |
| IV. kapitulua: Transferentziak eta diru-laguntzak. Gastu arruntak. Bazkideen transferentziak | 384.756,72 | 367.817,75 | 95,60% |
| VI. kapitulua: Inbertsioak | 194.500,00 | 32.149,90 | 16,53% |
| **2011ko DIRU-SARRERAK** | **2.138.603,85** | **1.601.966,59** | **74,91%** |
| IV. kapitulua: Transferentziak eta diru-laguntzak.Gastu arrunta. | 1.729.355,00 | 1.729.355,00 | 100,00% |
| -- Eusko Jaurlaritza | 1.729.355,00 | 1.729.355,00 | 100,00% |
| V. kapitulua: Ondare sarrerak. Finantza sarrerak | 15.000,00 | 29.831,90 | 198,88% |
| Aurreko ekitaldietako soberakina | 394.248,85 | -157.220,31 | |

Aurrekontuaren likidazio datuak 2011ko ekitaldiari dagozkio. Dena dela, txosten hau argitaratu orduko, urteko ikuskaritzaz egiaztatu behar dira datuok.

Gastuen likidazioaren bilakaera historikoa erakundearen aurrerabide eta finkapenaren emaitza da, bai eta erakundearen aholku izaeraren emaitza ere:







## 2. Batzordearen langileak

Presidente eta idazkari nagusiaz gain, bederatzi pertsonak osatzen dute Euskadiko EGABko plantilla. Bederatzi langile horiek ondoko eginkizunak dituzte:

- 3 azterlan eta egitasmoen arduradun
- 1 administrazio eta zerbitzuen arduradun
- 1 zuzendaritza idazkari
- 4 administrari

VI. KAPITULUA

# Komunikazioa, dokumentazioa eta argitalpenak

# 1. Komunikazioa

## BERRIPAPERAK

2008ko abenduan, Euskadiko EGABko bi hilez behingo berripapera argitaratu zen lehenengoz. Berripaper horren bitartez, EGABen jardueren berri zabaltzen da eta berebiziko garrantzia dauka erakundearen iritzia lehen baino jende gehiagorengana irits dadin. Berripaperak ekonomiari eta gizarteari buruzko gaurkotasun-albiste esanguratsuak dakartza, bai unean unekoak, bai egoera orokorrari dagozkionak. Beste alde batetik, erakundeak jorratzen dituen jardueren laburpena azaltzen du eta Europako lankidetza aletzen.

Esanguratsutzat jotzen den ekonomia eta gizartearen inguruko informazioari dagokionez, ondoko berriak azpimarratuko ditugu: lan merkatuari buruzko adierazleak, hezkuntza eta gizarte babesari buruzkoak…; industria ekoizpen, merkataritza, prezio, kostu eta ekoizkortasunari buruzko adierazleak; I+G+b; ingurumenari buruzko datuak (ur kontsumoa, energia kontsumoa, berotegi efektuko gasen isuriak…); garapenerako lankidetza; gastu publikoa eta zerga bilketa, gizarte zerbitzuak; demografia eta immigrazioa; etxebizitza; etorkizuneko proiekzio ekonomikoak…

Berripapera hiru bide erabiliz zabaltzen da: posta arrunta, posta elektronikoa eta web gunea.

## EGUNEROKO PRENTSA LABURPENA

2010eko abenduan, Euskadiko EGABentzako intereseko gaiak prentsan jarraitzeko zerbitzu berria jarri genuen abian.

Albisteak baliabide informatikoak erabiliz bilatzen dira, deskribatzaile batzuei jarraiki, batzordearen intereseko gaiak ahalik eta zehatzen bilatzeko.

Modu horretan biltzen den informazioa Euskadiko EGABen esku jartzen da, Internet bidezko plataforma baten gune pribatuan, bertatik baliatzeko.

Prentsa laburpena hautatu eta antolatutako albisteez osatzen da eta gero posta elektronikoz bidaltzen da egunero-egunero batzordeko partaideei eta EGABrentzat lan egiten duten pertsonei.

## URTEKO PRENTSA TXOSTENA

Urteko prentsa txostenean jasotzen dira EGABen jarduerei buruz prentsan, irratian zein telebistan zabaltzen diren albiste guztiak. Albiste horiek guztiak denboraren hurrenkeran antolatu eta txostena edo dossierra gertatzen da Euskadiko EGAB komunikabideetan agertu den berri guztiekin.

# EGABen JARDUERA KOMUNIKABIDEETAN

## PRENTSAURREKOAK

### 2011ko martxoaren 10ean, Bilbon – Euskadiko EGABen egoitza

Prentsa deia Euskadiko EGABen 2010eko Jardueren Memoriaren aurkezpena dela eta. Memoria horretan, Euskadiko EGABen aurreko urteko jarduerak jasotzen dira.

### 2011ko martxoaren 16an, Bilbon – Euskadiko EGABen egoitza

Prentsa deia Euskadiko EGABen lege proiektuaren aurkezpena dela eta. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien sailburu andreak Euskadiko EGABen osoko bilkuran izan zen batzordearen lege proiektua aurkezteko.

### 2011ko apirilaren 11n, Bilbon – Euskadiko EGABen egoitza

Euskadiko EGABk bere ekimenez sustatutako *Aurreikusitako demografia-bilakaeraren ondorioak EAEko ekonomia eta gizartean* azterlana aurkeztu zuen komunikabideen aurrean. Azterlan horretan, Euskadiko aurreikuspen demografikoak aletzen dira 2020. urtera arte, bai eta aurreikuspen horien eragin ekonomikoa eta soziala eskualdean eta ondorio kaltegarriak saihesteko egin beharreko urratsak ere.

### 2011ko uztailaren 13an, Bilbon – Euskadiko EGABen egoitza

Euskadiko EGABk EAEko 2010eko Memoria sozioekonomikoa aurkeztu zuen. Memoria horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia, lan eta gizartearen inguruko urteko datuak aztertzen dira. Gainera, Euskadiko EGAB osatzen duten eragile sozial eta ekonomikoen diagnostiko partekatua azaltzen da bertan.

### 2011ko azaroaren 17an, Bilbon – Euskadiko EGABen egoitza

Euskadiko EGABk bere ekimenez sustatutako azterlan bat aurkeztu zuen. Azterlan horrek euskal hezkuntza sistemaren eta EAEko jarduera sozioekonomikoaren beharrizanen arteko orekaz jarduten du. Hala, agiriak hainbat aldagai aztertzen ditu eta Euskadiko hezkuntza sistemaren eraginkortasuna hobetzeko proposamen dekalogoa eskaintzen du.

### 2011ko azaroaren 29an, Bilbon – Bizkaia Eraikina (EHU/UPV)

Soziologo eta ikertzaile Oriol Homsek gogoeta egin zuen Euskadiko EGABk egindako azterlan batean antzemandako joerek iradokitzen dizkiguten gizarte eta ekonomia aldaketen eragin eta erronkei buruz. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak Tribunaren beste edizio bat egin zuen eta soziologo eta ikertzaile Oriol Homsek parte hartu zuen bertan. EGABk bere ekimenez sustatutako *Hezkuntza Sistema EAEko Jarduera Sozioekonomikoaren beharrizanetara egokitzea* izeneko azterlanaren aurkezpenaren ildoan egin zen hitzaldia.

## PRENTSA OHARRAK

2011. urtean, 29 prentsa-ohar bidali ziren komunikabideetara behean aipatutako datetan, Euskadiko EGABen jardueren eta lanen berri emateko asmoz.

### 2011ko urtarrilaren 14a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara Ekonomia eta Ogasun sailburu Carlos Aguirre jaunak 2011ko aurrekontu orokorrak EGABen osoko bilkuran aurkeztu zituela jakinarazteko. 2011ko aurrekontu orokorren xede nagusia krisialditik irteten jarraitzea da eta, horretarako, hiru helburu behinen dauzkate: zergak finkatzeko ahalegina sendotzea; ekonomiaren lehiakortasuna areagotzea ekoizkortasuna hobetuz; eta Ongizate Estatuari lotutako egungo zerbitzu eta prestazioei eustea.

### 2011ko urtarrilaren 25a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Plangintzaren eta Prozesu Eragileen zuzendariak EGABko osoko bilkuran 2010-2013 aldiko Etxebizitza eta Hirien Leheneratzerako Plan Artezkariaren lan ildo estrategikoak aurkeztuko zituela jakinarazteko. Aipatutako plan hori Eusko Jaurlaritzaren etxebizitzari buruzko politikaren plangintza estrategikoa gertatzeko oso tresna garrantzitsua da eta datozen lau urteotako lehentasun estrategikoak ezartzen ditu.

### 2011ko urtarrilaren 26a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara Euskadiko EGABen osoko bilkuran Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundeak arautzen dituen lege aurreproiektuaren aldeko irizpena onetsi ondoren. Araudi horrek helburu dauka borondatezko gizarte aurreikuspena hedatzea Euskadiko herritarren artean, batez ere, taldeko eta laneko sistemak sustatuz. Batzordearen iritziz, aurreproiektuak argitu eta eguneratu behar du BGAEak egun arautzen dituen araudia, Estatuko eta Europako arauekin bat etortzeko.

### 2011ko otsailaren 3a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara Eusko Jaurlaritzako ordezkariek EGABko osoko bilkuran Euskadiko Gizarte Zerbitzuen sistema aurkeztu ondoren. Gizarte Zerbitzuen zuzendari Alfonso Gurpeguik emandako azalpenen arabera, saila lanean ari da Gizarte Zerbitzuen Legea garatzeko, gizarte babeseko sistema kohesionatua taxutzeko xedez. Aro honetan gertatzen ari diren gizarte aldaketa handien aurrean, “garatu beharreko laguntza ereduez eta gizarte babeseko sistema publikoen iraunkortasunaz hausnartu behar dugu”.

### 2011ko martxoaren 3a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara Euskadiko nekazaritza eta elikadura politikak arautzen dituen lege aurreproiektuaren aldeko irizpena eman zuela jakinarazteko. Aurreproiektu horren helburu nagusia da 2008ko abenduan onartu zen egungo euskal legea Europako Parlamentuaren Zerbitzu Zuzentarauaren arabera egokitzea. Azkenaren xedea benetako merkatu bakarra ahalbidetzea da Europako

Batasunaren barruan. EGABk gomendatzen du merkantziak ibilgetzeko epeei buruzko aipamenak kentzea, ikuskatzaileek irregulartasunak antzematen dituztenetan.

### 2011ko martxoaren 9a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara EGABk Euskal Autonomia Erkidegoko Telelaguntza zerbitzua arautzen duen dekretu proiektuaren aldeko irizpena eman zuela jakinarazteko. Dekretu proiektu horrek oinarrizko zerbitzutzat hartzen du telelaguntza eta zerbitzua etengabe bilakatzen dela onartzen du. Telelaguntza funtsezkoa da erabiltzaileak etxean bizitzen jarrai dezan, informazio eta komunikazio teknologietan oinarritutako sistemei esker, betiere, bizimodu askeari heltzeko irtenbideak bilatuz eta zaintzari nahiz norberaren autonomiari atxikitako alderdiak sustatuz. Euskadiko EGABk dekretu proiektuaren alde egiten du, baina batzordearen ustez, hainbat aldaketa egin behar dira testuan, erabiltzaileek ahalik eta autonomia mailarik handiena izan dezaten etxean bertan.

### 2011ko martxoaren 10a

Euskadiko EGABk 2010eko Jardueren Memoria aurkeztu zuen. Txosten horretan azaltzen denez, EGABk 2010ean emandako irizpenen erdia baino gehiago Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien Sailak bidalitako arauen gainekoak izan ziren. Argi dago Eusko Jaurlaritzako sailen eta batzordearen arteko harremanak errazak direla eta, horren erakusgarri, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuak edo Ekonomia eta Ogasun sailburuak, besteak beste, agerraldiak egin zituzten EGABren osoko bilkuran.

Batzordeak aurkezpena baliatu zuen EGABen ekimenez bultzatutako hainbat lan garatzen ari zirela esateko, hala nola, demografia, energia berriztagarri eta hezkuntza sistemaren egokitzapenaren ingurukoak. Lan horiek guztiak 2011. urtean argitaratuko dira.

Beste alde batetik, Euskadiko EGABk Europako Sare Transatlantiko eta Akitania eskualdeko EGABrekiko harremanak sendotu ditu. Horren haritik, baterako lanak abiatu dituzte itsasoko energia berriztagarriei buruz eta mugako garraio eta komunikazioen egoerari buruz.

### 2011ko martxoaren 16a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien sailburu Gemma Zabaletak EGABen osoko bilkuran agerraldia egingo zuela jakinarazteko. Sailburuak EGABen lege berriaren zirriborroaren nondik norakoak azaldu zituen. Lege horrek, besteak beste, bozketa gehiengoz egitea proposatzen du eta, horren ondorioz, orain arte indarrean izan den beto eskubidea baztertu. Bestetik, Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektorea batzordean txertatzea proposatzen du legeak; hala, ateak zabaltzen ditu kanpoko adituek unean-unean lan batzordeetan parte har dezaten eta, azkenik, EGABen eta Lan Harremanen Batzordearen eskumenak argitzen ditu.

### 2011ko martxoaren 18a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara Euskadiko haurtzaro eta nerabezaroko arrisku egoerak baloratzeko tresna onesten duen dekretu proiektuaren aldeko irizpena eman ondoren.

Tresna berriak, BALORA izenekoak, arrisku egoeren larritasuna neurtzeko aukera emango die haur eta nerabeei lagundu eta haiek babesteko udal eta lurralde zerbitzuei. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien Sailak bidali du EGABera tresna onesten duen proiektua.

### 2011ko martxoaren 21a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara Euskadiko familia bitartekaritzari buruzko zerbitzu publikora heltzeko modua arautzen duen dekretu proiektuaren aldeko irizpena eman zuela jakinarazteko. Izatez, familia bitartekaritza familia barruan sortzen diren gatazkak auzibidez edo judizioz kanpo konpontzeko bidea da. Gainera, familia bitartekaritzak Euskal Autonomia Erkidegoan daukan ezarpena aurrendaria da gainerako autonomia erkidegoen aldean.

EGABk kezka azaldu du proiektu honek ez duelako memoria ekonomikorik. Bada, proiektuaren dimentsio ekonomikoaren eta zerbitzua abian jartzeko finantzabidearen gaineko zalantzek eragotzi ahal baitute zerbitzuaren abioa.

### 2011ko apirilaren 8a

EGABk Euskadiko segurtasun publikoaren sistemaren antolamenduari buruzko lege proiektuaren aldeko irizpena eman zuen. Lege horrek xede dauka Segurtasun Publikoaren Sistema oso-osoan egituratzea. Hala, herri administrazioek ematen dituzten xedapen, bitarteko eta baliabide guztiak modu bateratuan kudeatu behar dira pertsonek eskubideak eta askatasuna gauza dezaten eta bakean, ongizatez eta gizarte kohesioz bizi daitezen.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak on irizten dio aurreproiektuaren proposamenari, hau da, segurtasun publikoaren sistema hobetu eta arrazionalizatzeko neurriak abian jartzeari. Proposamenak badakar, besteak beste, Polizia eta Larrialdien Euskal Agentzia sortzea.

### 2011ko apirilaren 11

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara batzordeak bere ekimenez bultzatutako "Aurreikusitako demografia-bilakaeraren ondorioak EAEko ekonomia eta gizartean" izeneko azterlanaren berri emateko. EGABk gertatutako azterlan horrek erabateko estrategia proposatzen du EAEko biztanleriaren zahartzeak ekarriko lituzkeen ondorio txarrak saihesteko. Azterlanak Euskadiko aurreikuspen demografikoa aztertzen du 2020. urtera arte, bai eta aurreikuspen horrek gure eskualdean izango lukeen eragina eta balizko ondorio txarrak ekiditeko urratsak ere.

EGABk erabateko estrategia abian jartzea proposatzen du, epe luzean, aurreikuspen demografikoek lan merkatuan, pentsio sisteman, osasunean eta osasun sarean, menpekotasunean, gizarte zerbitzuetan eta hezkuntza sisteman edukiko lituzketen ondorio txarrei aurre egiteko.

### 2011ko maiatzaren 20a

Pedro Reques irakasleak parte hartu zuen EGABk antolatutako tribuna batean. Reques Kantabriako Unibertsitateko Giza Geografiako katedraduna da eta bertan parte hartu

zuen batzordeak bere ekimenez bultzatutako azterlan bat aurkezteko “Aurreikusitako demografia-bilakaeraren ondorioak EAEko ekonomia eta gizartean”. Katedradunak EAEko egungo egoeran eta etorkizunekoan bilakaera demografikoak daukan garrantzia aztertu zuen. Mendebaldeko Europan gertatzen ari diren aldaketak, bereziki Euskadin gertatutakoak, berebizikoak izan dira azken hiru hamarkadetan eta, horren ondorioz, demografiak aldagai askearena egin dezake; hori dela eta, demografiak ekonomia bera eta gizarte egitura baldintzatu ditzake etorkizunean edo, bestela, azken biak zehaztu.

### 2011ko maiatzaren 25a

EGABk kiroleko dopinaren aurkako lege aurreproiektuaren aldeko irizpena eman zuen. Aurreproiektu horrek, dopinaren kontsumoaren aurkako neurriak arautu ez ezik, hemengo araudia bateratu nahi du Dopinaren Aurkako Nazioarteko Kodearen abiaburuekin eta horien osagarri diren nazioarteko estandarrekin. Lege horren helburu nagusia da osasun publikoa eta kirolarien osasuna zaintzea kirol esparruan eta lehiaketetan joko garbia sustatzea.

EGAB bat dator arauak dioenarekin. Izan ere, batzordearen iritziz, dopina kirolaren antinomia edo kontraesana da. Irizpenean, aholku organoak gaizki-ulertuak sor ditzaketen eduki batzuei buruzko zehaztasunak ematen ditu eta zehapenen mailaketa proposatzen du.

### 2011ko uztailaren 7a

EGABk Eusko Jaurlaritzak diseinatutako Garapen Jasangarrirako Estrategiaren aldeko irizpena eman zuen. Agiri horren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako euskal herri administrazioen arloko politika guztiak uztartu nahi ditu, erabateko jasangarritasuna, ekonomikoa, gizarte arlokoa nahiz ingurumen arlokoak bermatzen duten helburuak, jarraibideak eta abiaburuak ezarrita. EGABen ustez, oso onuragarria da lehendakariak berak garapen jasangarrirako estrategiaren lidergoaz arduratzea, gobernuaren ekintza biribiltzen duelako eta erakundearen ordezkaritza betea duelako. Halaber, Eusko Legebiltzarrak onar dezan eskatzen du, ahalik eta adostasun handienez.

Beste alde batetik, EGABen aburuz, egungo egoeraren aldean estrategia berriak balio erantsiari eutsiko badio, ezinbestekoa da ekonomia eta gizarte ikuspegiak modu orekatuan landu behar dira ingurumen ikuspegiarekin batera.

### 2011ko uztailaren 13a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara Eusko Jaurlaritzako lehendakari Patxi Lopezek EAEko 2010eko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztuko zuela jakinarazteko. Memorian azaltzen denez, ekonomia zerbait hobetu zen urte horretan kanpoko sektore eta industriari esker, baina ez zen nahikoa izan enplegua sortu ahal izateko. 2010eko ekitaldian, jarduera ekonomikoa hobetu zen eta BPG indizea % 0,3 hazi zen. Joera horren arrazoia, batik bat, kanpoko sektorearen bilakaeran datza, barruko eskaeraren motelaldia apaldu baitu.

EAEko langabetuen tasak gora egin du, baina EGABk aintzat hartzen du industria sektorea suspertu dela, 3.100 langile hartu baititu. Ildo horretan, aholku organoak enplegua sortzeko politiken bultzada azpimarratu nahi du, lan merkatura sartzeko funtsezko giltzarria delakoan.

Azkenik, aholku organoak nabarmendu nahi du 2009. urtean munduko krisialdi larriak gurean ere gogor jo zuen arren –Euskadiko BPG % 3,8 beheratu zen– I+G jardueren konturako gastua % 1,3 igo zela Euskal Autonomia Erkidegoan.

### 2011ko uztailaren 15a

EGABk Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea arautzen duen lege aurreproiektuaren aldeko irizpena eman zuen. Arau horren helburua da batzordearen eraginkortasuna hobetzea araudiaren barruan hainbat aldaketa eginez, batzordea Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren "aholku erakunde" bihurtzeko Euskadiko politika ekonomiko eta gizarte politikaren inguruan. Era berean, legeak batzordearen eskumenak zehazten eta Lan Harremanen Batzordearenak bereizten ditu eta osoko bilkurak erabakiak hartzeko araudia aldarazten du.

Hala eta guztiz ere, EGABen iritziz, lege aldaketa honek erantzun beharko lioke batzordeak hainbatetan egindako eskaerari; bada, batzordeak kontsultak jaso beharko lituzkeela dena delako lege proiektu edo dekretua onartu baino lehentxeago.

### 2011ko uztailaren 21a

EGABk pertsona transexualei erabateko laguntza emateko lege aurreproiektuaren aldeko irizpena eman zuen. Testuak aurrerapena dakar pertsonen identitate sexuala despatologizatzeko aldarrikapenari dagokionez eta, funtsezko eskubidea den aldetik, pertsonen generoa aske adierazteko aitorpenari dagokionez. Aholku organoaren gomendioz, aurreproiektuaren helburu nagusia ahultzen duten termino eta adierazpen batzuen erabilera argitu beharko litzateke. Horren haritik, azpimarratzekoa da dokumentuaren izenburua aldatzeko gomendioa.

### 2011ko uztailaren 27a

EGABk Errepideko bidaiarien garraioari buruzko Legearen araudia onesten duen dekretu proiektuaren aldeko irizpena eman zuen. Euskadiko EGABk aintzat hartu zuen ekimena, Euskal Autonomia Erkidegoko araudia osatu eta horren aplikazioa errazten baitu, legearen bitartezko alderdiak eta xehetasunak emanda. Testu berriak azkena eman dio berezko araudiaren garapen ezak iraun duen aldi luzeegiari.

### 2011ko irailaren 21a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara Euskadiko Etxebizitzari buruzko lehen Legearen aurreproiektuaren aurkezpena Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen aurrean egingo zela jakinarazteko. Bilkura horretan, Etxebizitza Sailaren ordezkariek Eusko Jaurlaritza prestatzen ari den Etxebizitzari buruzko Legearen nondik norakoak azaldu zituzten. Ordezkariek esandakoari jarraiki, Eusko Legebiltzarrak onartuko bide du legea 2011. urtea amaitu baino lehen.

### 2011ko urriaren 6a

EGABk ondo iritzi zion Familiaren Euskal Kontseiluaren dekretu proiektuari. Agiri horrek Familiaren Euskal Kontseilua sortzeko balio izango du. Familiaren kontseilua aholku organoa izango da eta herri eragileen parte-hartzea eta lankidetza bideratuko du familiei eragiten dieten politika publikoak diseinatzerakoan.

EGABk aintzat hartzen du proiektuak eragileen arteko koordinazioari ematen dion garrantzia, bai eta administrazioz kanpoko erakunde eta pertsonen parte-hartzeari ematen diona familiei laguntzeko politiken diseinua eta jarraipena zehazterakoan.

### 2011ko urriaren 13a

EGABk Bizialdi osoko Ikaskuntzari buruzko Legearen aurreproiektuaren aldeko irizpena eman zuen. Agiri horrek erantzuna eman nahi dio biztanle guztiak kontuan hartzen dituen bizialdi osoko ikaskuntza sistema bultzatzeko beharrizanari. Sistema horrek oinarrizko trebetasunak eskuratu eta garatzeko aukera emango luke eta, gainera, pertsona guztien gizarteratze, parte-hartze eta sormena bultzatuko luke gizarte, ekonomia, politika eta kultura esparruetan, batik bat, gizatalde behartsuenetako kideak. EGABen iritziz, Bizialdi osoko Ikaskuntzari buruzko Legeak bizialdi osoko euskal ikaskuntza sistema bultzatu beharko luke, pertsonen enplegagarritasunaren hobekuntza eta giza, gizarte eta lanbide garapena lehenetsita.

### 2011ko azaroaren 2a

EGABk Euskadiko Paisaiari buruzko Legearen aurreproiektuaren aldeko irizpena eman zuen. Aurreproiektu horren xede nagusia da euskal paisaiei bidezko aitorpen juridikoa ematea eta paisaiok kudeatu eta hobetzeko tresna egokiak ezartzea. Euskadiko EGABk aintzat hartzen du agiria zuzenbidera egokitzeko ahalegina izatea, beste autonomia erkidego batzuetan egin den moduan. Hala ere, EGABen iritziz, badira hobetzeko arloak. Beste alde batetik, batzordeak uste du aukera paregabea dela lurraldea, hirigintza, garapen jasangarria eta paisaia ezin hobeto uztar ditzakeen legea gertatzeko.

### 2011ko azaroaren 3a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara EGABen ekimenez gauzatutako "Hezkuntza Sistema EAEko Jarduera Sozioekonomikoaren beharrizanetara egokitzea" izeneko azterlana Hezkuntza sailburuaren aurrean aurkeztuko zela jakinarazteko. Azterlanaz gain, Bizialdi osoko Ikaskuntzari buruzko Legearen aurreproiektuarekiko loturak ere azaldu ziren, azken araua beharrezkotzat jotzen baita.

Aurkezpenean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako presidente Juan María Otaeguik Isabel Celáari aurreratu zizkion datorren azaroaren 14an aurkeztu den azterlan horren nondik norako nagusiak.

### 2011ko azaroaren 14a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara 2012. urteko aurrekontu orokorrak EGABen osoko bilkuran aurkeztuko zirela jakinarazteko. 2012ko aurrekontu politikak hiru helburu nagusi betetzeko asmoa dauka: enplegua sortzea ekoizkortasunaren hobekuntzan

oinarritutako lehiakortasun ekonomikoa areagotuz; funtsezko gizarte zerbitzu eta prestazioak bermatzea; eta aurrekontuen egonkortasuna zerga finkapenaren bidetik.

Carlos Aguirrek, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako presidente Juan María Otaeguik lagunduta, bere konpromisoari eutsi eta aurrekontu orokorrak aletu ditu batzordearen aurrean, nahiz eta izapide hori derrigorrezkoa ez izan.

## 2011ko azaroaren 16a

EGABk ondo iritzi zion Euskadiko Etxebizitzari buruzko Legearen aurreproiektuari. Batzordeak aintzat hartu zuen etxebizitza duin eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboaren aintzatespena, izaera orokorrez EAEn bizi eta bidezko eskakizunak betetzen dituzten pertsona guztientzat.

Dena dela, batzordeak zalantza egin zuen etxebizitza hutsei buruzko arauketari dagokionez –etxebizitzaren jabetza kentzeko aukera jasotzen du, higiezinen parke publikoaren esku ipintzeko– eta etxebizitza libre hutsak zergapetuko dituen kanonari dagokionez.

## 2011ko azaroaren 17a

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak bere ekimenez bultzatutako azterlan bat aurkeztu zuen. Bertan, lan merkatuari eragiten dioten aldagai batzuk aztertu, lan merkatuak eskatzen dituen prestakuntza mailen eskaintza eta eskariaren arteko doiketa neurtu eta euskal hezkuntza sistemaren eraginkortasuna hobetzeko proposamen dekalogoa eskaintzen du.

Etorkizunean, prestakuntzak malgua eta irisgarria izan beharko du, eta hamaika prestakuntza ibilbide eta pasabide eskaini beharko ditu pertsonak lanbide profil eta prestakuntza berrietara egokitu daitezen. Era berean, malgutasuna eta irisgarritasuna laneratzeko prestakuntzaren esparruan ere baliatu beharko dira.

Jarduera sozioekonomikoaren beharrizanen kuantifikazioa (modu kuantitatiboan zein kualitatiboan) erronka handia da. Ingurumari horretan, Enpleguaren Behatokia eta, bereziki, behatokiak egiten duen lan prospektiboa, funtsezkoak izango dira.

## 2011ko azaroaren 29a

Prentsa oharra bidali zen komunikabideetara EGABk bere ekimenez bultzatutako azterlan bat aurkezteko hitzaldiaren berri emateko helburuz: Azterlana ondokoa izan zen: “Hezkuntza Sistema EAEko Jarduera Sozioekonomikoaren beharrizanetara egokitzea”. Hitzaldi horretan, Oriol Homs soziologoak hezkuntzaren eragina aztertu zuen gizarte eta ekonomia eraldaketaren gainean eta egun gertatzen ari diren aldaketa sozial eta ekonomikoek sorrarazten dituzten eraginen eta hezkuntza erronka berriez gogoeta egin zuen. Horien guztien joerak jasota daude EGABk aurkeztutako azterlanean. Beste alde batetik, batzordeak hobekuntza proposamenen dekalogoa proposatu zuen euskal hezkuntza sistemaren eraginkortasuna hobetzeko.

## 2011ko abenduaren 1a

EGABk ondo iritzi zion eraikuntza eta eraspen lanetan sortzen diren hondakinen kudeaketa arautzen duen dekretu proiektuari. Araudi horren bitartez, erakuntza eta eraispen lanetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautu nahi dira.

Irizpenak badio dekretuak eraikuntza eta eraispen lanetako hondakinen kudeaketa zuzenaz dihardueIa, baina ez duela eraikinen diseinua jorratzen.

### WEB GUNEA

Erakundearen web gunean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari, bere jarduerei eta bere argitalpenei buruzko informazioa eskaintzen da.

Prentsa Aretoaren barruan, *Berriak* atalean, batzordeak unean-unean egiten dituen jardueren gaineko informazio eguneratua eskuratu daiteke, besteak beste, ondokoen ingurukoa: irizpenak, txostenak eta azterlanak, hitzaldiak eta abar.

Euskadiko EGABk argitaratutako lan guztiak web gunean eskuragarri daude eta behera kargatu daitezke PDF formatuan.

### IKUSIZKO AGIRITEGIA

Batzordeak antolatutako ekitaldi eta batzar esanguratsuenen argazki digitalak gordetzen ditu agiritegi batean. Argazkiak unean-unean bidaltzen dira aldizkari eta egunkarietara kazetarien lana errazteko.

## 2. Dokumentazioa

Dokumentazio Zerbitzuak oinarrizko agiri azpiegitura kudeatzen du batzordekideek eta batzordearen zerbitzuko langileek modu erraza izan dezaten erabilgarri dauden euskarriez jakin eta haiek eskuratzeko, egin beharreko lanetan (irizpenak, memoriak, azterlanak, txostenak...) lagungarri izan ditzaten.

Helburu hori betetzeko, honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu:

- Agiriak eskuetaratzea.
- Agiritegia antolatu eta zaintzea.
- Liburutegian sartzen diren argitalpen berriei buruzko berripapera egin eta e-postaz bidaltzea (astean behin)
- Aldizkariak banatzea (astean behin)
- Bibliografia eta agirien bilaketa egitea eskatzailearen neurrira.
- Gai jakingarriei buruzko txostenak egitea.
- Kanpoko berripaper elektroniko espezializatuak banatzea.

## 3. Argitalpenak

2011. urtean ondoko argitalpenak egin eta banatu ziren:

- 2010EKO JARDUEREN MEMORIA:
  - Ele biko argitalpena paperean, 430 ale.
- 2010EKO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA:
  - Euskarazko argitalpena paperean, 400 ale.
  - Gaztelaniazko argitalpena paperean, 850 ale.
- 2010EKO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOAREN LABURPENA ETA GOGOETAK:
  - Ele biko argitalpena, 500 ale.
- IRIZPENAK:
  - 24 irizpenen ele biko argitalpena. 700 ale.
- BERRIPAPERA:
  - Ale-kopurua:1000.
- BATZORDEAREN EKIMENEZ EGINDAKO AZTERLANAK:
  - Aurreikusitako demografia-bilakaeraren ondorioak EAEko ekonomia eta gizartean.
    - Ele bietako argitalpena paperean, 650 ale.
  - Hezkuntza Sistema EAEko Jarduera Sozioekonomikoaren beharrizanetara egokitzea.
    - Euskarazko argitalpena paperean, 650 ale.
    - Gaztelaniazko argitalpena paperean, 650 ale.

VII. KAPITULUA

# Euskadiko EGABren legeria

- **3/1979 LEGE ORGANIKOA,** 1979ko abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuarena.
  (EAOko 306. zk., 1979-12-22koa) (EHAAko 32. zk., 1980-01-12koa)

- **9/1997 LEGEA,** ekainaren 7koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa.
  (EHAAko 141. zk., 1997-07-24koa)

- **1997ko abenduaren 18ko osoko bilkuraren ERABAKIA,** Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduaren Araubideari buruzkoa (EHAAko 10. zk., 1998-16-01ekoa)